



GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA

Marko teorikoa





Hezkuntza Berriztatzea



Hezkuntza Ikuskaritza



ISEI·IVEI



GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA

Aurkibidea

1. Konpetenziaren justifikazioa.	2
1.1. Oinarriak eta aurrekariak	2
1.2. Gizarterako eta herritartasunerako konpetenziaren funtsezko ezaugarriak.	4
1.3. Zenbait erronka.	5
2. Konpetenziaren deskribapena.	6
3. Gizarterako eta herritartasunerako konpetenziaren dimentsioak.	8
4. Azpikonpetentzia bakoitzaren adierazleak eta mailaketa.	10
4.1. Azpikonpetentzia bakoitzaren adierazleak eta mailaketa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako.	10
4.2. Azpikonpetentzia bakoitzaren adierazleak eta mailaketa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailarako.	22

1. Konpetenziaren azalpena

1.1. Oinarriak eta aurrekariak

Gizarte modernoek hezkuntza-sistemak eratu dituzte, oinarrizko jakintza eta balioak helarazteko belaunaldi berriei. Jakintza eta balio horiek, zenbait kasutan, berezkoak eta berezituak izaten dira. Egiteko hori betetzeko, hezkuntza-sistemek gero eta indar handiagoa hartu dute azken hamarkadetan, eta, zenbaitetan, betidanik familienak izan diren ardurak hartu izan dituzte beren gain.

Azken aldian, gizarteak bizi izan dituen askotariko aldaketek bultzatuta, eta gizarteak hezkuntza-sistemei egiten dizkien eskakizunen ondorioz, aldatu egin da hezkuntza-eredua. Gero eta prestakuntza osoagoa eman nahi zaie ikasle guztiei, oinarrizko konpetentzia batzuk eskuratuko dituztela sustatu eta bermatzeko; izan ere, hezkuntza-sistemak geroko herritarrak izateko prestatu nahi ditu egungo ikasleak.

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziak lotura zuzena du pertsonen prestakuntza osoarekin, norberaren nortasuna eta komunitatearena eraikitzea baitu xede. Ikasleen ezaugarriek berebiziko eragina dute eskolako ikastaldian eta bitzita guztian ikasteko prozesuan. Konpetentzia honek gizadiaren partaide izatearen sena garatu nahi du ikasleengan, bi alderdi hauetatik begiratuta: espazioaren ikuspegitik, haren maila guztietan (norberaren herritik hasi eta gizateri osoraino zabalduz); eta giza eskubide unibertsalen babesaren ikuspegitik.

Bitzita osoan zehar ikasteko prozesuaren oinarri-baldintzetako bat da ikasleak behar bezala jabetzea gizarte demokratiko batean bizi direla. Gizartearen ezaugarriak ezagutu behar dituzte ikasleek eta gizartearen dibertsitatearen, erronken eta arazoen berri izan; horrez gain, gogoz parte hartu behar dute gizarte-eremuetan eta eremu politikoetan, printzipio etiko sendoetatik abiatuta. Ikasleek elkartasunezko jokabideak izan behar dituzte, beren osasunaren eta prestakuntzaren ardura hartu behar dute, errespetuz elkarreragin behar dute gainerako pertsonekin eta ingurunearekin, eta jarrera kritikoa izan behar dute injustiziekiko, oinarrizko eskubideen urraketekiko eta sistema sozial eta politikoaren inperfekzioekiko.

Eremu ekonomiko, politiko eta kulturala da Europa, haren mugak zehaztea, maiz, erraza ez bada ere. Printzipio demokratikoak darabiltzan gizarte bat eratu nahi du Europak, eta gizarte horretan, informazioaren eta komunikazioaren gizarlean, behar bezala islatu nahi ditu hizkuntza eta kultura anitzeko herritarren interesak. Finean, eragile bizia izan nahi du mundu globalizatuan. Helburu horiek baditu ere, izaera askotako arazo eta desorekak ditu Europak oraindik ere, eta erronka eta zailtasun berriak izango ditu etorkizun hurbilean. Egoera horri erreparatu ondoren, azken urteetan azterlanak egin (DeSeCo¹ eta beste batzuek) eta gomendioak eman dituzten lantaldeek

¹ DeSeCo txostena (*Gaitasun giltzarriak zehaztea eta hautatzea*), Ekonomia, Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) egin, ingelesez argitaratu zen, 2003an (www.OECD.org/ed/statistics/deseco).

adierazi dute gizarterako eta herritartasuneko konpetentziek lekua izan behar dutela Europako Hezkuntza Esparruaren egiturazko zortzi oinarriko konpetentzien artean. Horrela jokatzuz gero, bete egingo da Lisboako estrategiak egindako proposamena. Hori guztia aintzat hartuta, Kontseilu Europarrak, 2001eko martxoan, hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen hiru helburu estrategikoak finkatu zituen, eta, horien baitan, lehentasunezko lekua dute gizarte-inklusioko eta herritartasun aktiboak. Hiru helburu horien xede dira, zehazki, Europako hezkuntzaren kalitatea, hezkuntza horretarako sarbidea eta Europako hezkuntza mundura irekitzea.

Gerora, 2004an, Europako Batzordeak erabaki zuen europar herritartasuna izango zela Europar Batasunaren lehentasunezko ekintzetako bat². Ildo horri jarraiki, 2005. urtea *Hezkuntzaren bidezko Herritartasunaren Europako Urtea* izango zela erabaki zuen Kontseilu Europarrak. Horrez gain, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO) gogoz sustatu zuen herritartasunerako hezkuntza mundu osora zabaltzeko ekimena, programa honen bidez: Giza Eskubideei buruzko Hezkuntzarako Nazio Batuen Hamarkada (1995-2004)³. Kontseilu Europarrak ere *Herritartasun Demokratikorako Hezkuntza*⁴ izeneko proiektuan aritu izan da lanean.

Ebaluazioko eta ikerketa proiektu gutxi egin dira arlo horretan, baina berariazko aipamena merezi du Hezkuntza Errendimendua Ebaluatzeko Nazioarteko Elkarteak (IEA) arlo horretan egin duen lana. Izan ere, 2001 eta 2002 urteetan, *Hezkuntza Zibikoari buruzko Azterlana* diseinatu eta egin zuen hainbat herrialdetan; zehazki, 28 herrialdetako 140.000 ikasle, irakasle eta zuzendaritzak parte hartu zuten proiektu horretan⁵.

Europako hezkuntzari buruzko informazio-sare europarrak (Eurydice) egindako ikerlan berriago batek adierazten du herritartasunerako hezkuntza bitarteko egokia dela haur eta gazteak herritar arduratsu eta eragileak izan daitezen etorkizunean. Ikerlan horrek adierazten du konpetentzia horren berezko edukiak direla herritarren eskubide eta betebeharrak ikastea, demokraziaren balioak eta giza eskubideak errespetatzea, eta garrantzia ematea elkartasunari, tolerantziari eta gizarte demokratikoetan parte hartzeari⁶. Edukizko printzipio horiek oso onartuak badira ere, gizarterako eta herritartasunerako hezkuntzari buruz Europar Batasunean egin diren azterlanek adierazten dute estatu kide guztiek ez dutela konpetentzia horren curriculum-adierazpen komunik. Izan ere, konpetentzia hori hainbat bidetatik lantzen da Europar Batasuneko estatuetan: herrialde batzuetan, irakasgai autonomoen bidez lantzen da; beste batzuetan gizarte-zientzietako arloan lantzen da; zenbait hezkuntza-sistemek zehar-izaera ematen diote; etab. Errealitate horrek

² Europako Batzordeak 2004an egindako komunikazioa, *Gure etorkizun komuna eraikitzea. Batasun handituaren erronka politikoak eta aurrekontu-bitartekoak (2007-2013)*.

³ Unesco erakundearen <http://www.unesco.org/es/human-rights-education/> web-orrian adierazten dira Giza Eskubideetarako Hezkuntzaren printzipioak eta indarrean dagoen programari buruzko informazioa.

⁴ Europako Kontseiluak, 2004. urtean, <http://www.coe.int/t/dg4/education/edc/> web-orria abiarazi zuen, ingelesez eta frantsesez, Herritartasun Demokratikoari buruzko Hezkuntzaren Ataleko informazioa emateko.

⁵ Web-orri honetan kontsulta daiteke: <http://www.wam.umd.edu/~iea/>, el *Civic Education Study*.

⁶ Eurydice (2006): *Herritartasunerako hezkuntza Europako eskoletan*,. 5. or. (sarrera): http://www.eurydice.org/ressources/eurydice/pdf/0_integral/055ES.pdf.

agerian uzten du zein den gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren egitura zehazteko egun dagoen zailtasun handienetako bat.

Oro har, "*herritartasun arduratsua*" kontzeptua darabilenean (beste batzuetan, "*herritartasunerako hezkuntza*" kontzeptua erabiltzen du), hiritar-eskubide eta -ardurak ezagutzeaz eta erabiltzeaz dihardu Eurydice sareak. Herrialde guztiek balio jakin batzuekin lotzen dute kontzeptu hori, eta, horien artean, nabarmentzekoak dira: demokrazia; giza duintasuna; askatasuna; giza eskubideen errespetua; tolerantzia; berdintasuna; legea betetzea; gizarte-justizia; elkartasuna; ardura; leialtasuna; lankidetzak, parte-hartzea; eta pertsonen espirituaren, moralaren, kulturaren nahiz alderdi mental eta fisikoen garapena. Oro har, herrialde guztiek uste dute balio horiek funtsezkoak direla herritartasun arduratsuen kontzeptua ulertzeko.

1.2. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren funtsezko ezaugarriak

Elkarren mendekoak diren hiru ardatz nabarmentzen ditu Eurydice sareak egindako azterlanak:

- kultura politikoa,
- pentsamendu kritikoa eta jarrera eta balio jakin batzuk garatzea, eta
- parte-hartze aktiboa⁷.

Lehen ardatz edo kategoriak jakintza teorikoen eskurapenaz dihardu, eremu hauetan: historia, geografia eta beste gizarte-zientzia batzuk; konstituzioaren eta oinarrizko beste arau batzuen printzipioak; antolamendueredu nagusiak eta sistema politikoa. Kategoria hau da ebaluatzeko errazena.

Bigarren kategoriak ikasleen parte-hartze handiagoa eskatzen du, haien iritziak eta jarrerak adierazi behar baitituzte. Gizartean herritar arduratsuen gisan eta behar besteko informazioa izanda jarduteko behar den gogoia eta jarrera lantzeko eskatzen zaie gazteei. Helburua, kasu honetan, helburuak ez dira aurrekoak bezain "neutroak", eta, formalki definitutako kontzeptuen aldean, zailagoa da haien lorpena ebaluatzea.

Hirugarren kategoriaren baitan, ekintzak egiteko eta beren komunitateko bitzita kultural, sozial eta kulturalean gogoz parte hartzeko eskatzen zaie ikasleei. Helburuetako bat da gizalegezko jokabideak izateko konpromisoa betetzeko aukerak ematea ikasleei, bai ikasgelan egiten diren jardueretan, bai ikasgelatik kanpo egiten direnetan, eta, horrez gain, ikasleei animatzea askotariko ekimenak abiaraz ditzaten. Azken helburua da ikasleei bultzada bat ematea, aurreko bi kategorietan ikasi dutena praktikan landu dezaten. Ematen zaien informazioaren xedea da gizartean gogoz parte hartzeko duten gaitasuna ulertzea eta hobetzea eta egiten dituzten esku-hartzeak eta elkartasun-lanak

⁷ Eurydice (2006): *Herritartasunerako hezkuntza Europako eskoletan*, 10-11. or.: http://www.eurydice.org/ressources/eurydice/pdf/0_integral/055ES.pdf.

eraginkorrak izateko behar diren trebetasunak aplikatzea. Ikasleek eskuratzen dituzten balioak eta jarrerak erreferentziazko jokabide-esparrua izan behar dute gizartean arduraz parte har dezaten, herritarren eskubideak eta betebeharrak aintzat hartuta.

Europako Parlamentuak ebazpen bat eman zuen 2005ean, Parlamentuak berak eta Kontseiluak etengabeko ikaskuntzarako konpetentzia giltzarriei buruzko gomendio-proposamena zehazteko. Ebazpen horrek honela deskribatu zituen “gizarterako eta herritartasunerako konpetentziak”:

“Gaitasun horien baitan sartzen dira gaitasun pertsonalak eta pertsonen eta kulturen artekoak, eta pertsonak gizarte-bizitzan eta bizitza profesionalean eraginkortasunez eta probetxuz parte hartzeko jokabide-moduak jorratzen dituzte; batik bat, gero eta dibertsifikatuagoak diren gizarteetan. Horrez gain, beharrezkoa izanez gero, gatazkak konpontzeko jarrerak lantzen dituzte gaitasunok. Herritartasunerako konpetentziak prestakuntza jakin bat ematen die pertsonari gizarte-bizitzan partaidetza osoa izan dezaten, eta, horretarako, kontzeptu eta egitura sozial eta politikoak jakinarazten dizkie, eta partaidetza aktibo eta demokratiko baterako konpromisoa helarazten”.

Herritartasunaren alderdiak nabarmentzen ditu Eurydice sareak egindako proposamenak, baina Europako Parlamentuaren proposamenak gizarterako konpetentziak eta herritartasunerako konpetentziak elkartzeko ahalegina egiten du. Hala ere, bi proposamen horiek ez dira generikoak, eta ez datoz bat Europako hezkuntza-sistemetan indarrean diren curriculumekin. Ildo horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren eduki-esparrua garatzeko garaian, ahalegin berezia egin da esparru hori bat etor dadin indarrean diren curriculumekin, haien arteko koherentzia bermatzeko.

1.3. Zenbait erronka

Arlo eta irakasgai jakin batzuekin beste batzuekin baino lotura zuzenagoa izan badezake ere, hezkuntza-jarduera guztietan du eragina gizarterako eta herritartasunerako konpetentziak (irakas- eta ikas-denbora, tutoretza, eskolaz kanpoko jarduerak, jolas-denbora, familiekiko harremanak, etab.). Hala ere, jorratu beharreko bidea ez da jakintza zehatza batzuk indartzea; aitzitik, metodologia-eredua aldatzera jo behar da, ulermenean oinarritutako ikaskuntza bat jorra dezaten ikasleek. Ulermenaren bidez, baliabide kognitiboak eta emozionalak jorratzen dira, oso egokiak direnak jarrera kritikoak eta hausnartuak lantzeko⁸. Teoria horren oinarri kontzeptualek diote ulermenaren eta ikaskuntzaren bidean ezinbestekoa dela ikasleak bizipen praktikoak izatera bultzatzea, lan bizigarri eta motibatzaileen bidez, erronka intelektualak izan ditzaten. Hori lortzeko, informazioa baliatu behar da ikasleei arazoak

⁸ M^a Teresa Rojas da eredu horren bultzatzaileetako bat. Eredu hori *Ulermenerako Irakaskuntza* izeneko proiektuan oinarritzen da. Proiektu hori Harvard Unibertsitateko ikertzaile-talde batek sortu zuen, laurogeita hamarrekadaren hasieran. Ikus, ROJAS, M. Teresa (2007): “*Enseñar historia desde las «competencias para comprensión»: el EpC de la Universidad de Harvard*”, in *Iber*, 52. zk., 63-71 or.

planteatzeko; betiere, ikasleentzat esanguratsuak diren testuinguruak eskaintzen saiatuz. Ulermen-eredu anitzak baliatuz, gizarte-pentsamendu bat sor daiteke, eta pentsamendu horretatik abiatuta, iragana eta iragan horrek errealitatearekin duen lotura aztertu, ikertu, susmatu eta arrazoitu dezakete, eta horixe bera egin haien ingurunearekin, inguruneko arazoekin eta haien eguneroko errealitatearekin.

Horrenbestez, gizarterako eta herritartasunerako konpetentziak izaera anitzeko elementuak biltzen dituzenez, erronka berri bat aurkezten digu. Erronka berri hori nahiko ondo adierazia azaltzen da Le Boterf autoreak konpetentziaz emandako definizioan: “[...] egiten jakitea, hau da, baliabide-multzo bat (ezagutzak, jakintzak, trebetasunak, arazoibideak, etab.) testuinguru jakin batean biltzen, erabiltzen eta baliatzen jakitea, askotariko arazoei aurre egiteko edo lan bat egiteko”⁹. Definizio honek ageri duen ideia da ikasleek gai izan behar dutela, arazorik izanez gero, aurrez dituzten jakintzak lotu eta arazo horiei aurre egiteko.

Azkenik, ezin da ahaztu zer-nolako garrantzi handia duten esparru informalek, akademikoak ez direnek, ikasleen gizarte-pentsamendua eraikitzeko prozesuan. Ikasleen beraien eta haien inguruko pertsonen bizipenek edo komunikabideetan ikusi eta entzuten dituzten gauzek eragin handia dute prozesu horretan.

2. Konpetentziaren deskribapena

Gizarteari buruzko jakintzak haren ikuspegi guztietatik erabiltzeko trebetasuna da gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia; betiere, gizartegertakariak eta -arazoak aldagarriak diren testuingurutan eta espazio-eskalatan interpretatzeko, horiei dagozkien erantzunak landu eta erabakiak hartzeko, eta beste pertsona eta talde batzuekin elkarreragiteko, indarreko arauak betez.

Konpetentzia honen bidez lortu nahi da ikasleek egungo gizarteen eta sistema demokratikoaren antolamenduari, funtzionamenduari eta eboluzioari buruzko jakintza zehatzak izan ditzaten eta, berariaz, sistema demokratikoaren ezaugarriak eta balioak ezagut ditzaten; halaber, trebetasunak lantzea du helburu, inguruneko arazoak identifika ditzaten, beren bizipenak aztertu eta horiei buruzko gogoetak egin ditzaten, garrantzizko informazioa lortu, interpretatu eta balora dezaten, eta, finean, proposamenak lan ditzaten, arduraz eta gero eta autonomia handiagoz bizitzeko. Beste xede batzuk dira gizartegertakariari buruzko ikuspegi kritikoa lantzea, gizarte-justizia, dibertsitatearekiko errespetua eta antzeko balio demokratiko eta herritarrak garatzea, eta jarrera gogotsuak izatea ingurukoei entzuteko, elkarrizketatzeko, laguntzeko, parte hartzeko, enpatia izateko, etab. Ikasleak beren nortasunaz jabetzea eta

⁹ LE BOTERF, G. (1996): De la compétence à la navigation professionnelle. Paris. Les Editions d'Organisations. Citado en OSANDÓN MILLAVIL, L. & AYALA VILLEGAS, E. (2007): ¿Cumplen algún papel los contenidos de la historia en el aprendizaje por competencias? Íber, núm. 57, pág. 78.

kontzientzia hori heltzea lortu nahi da, eta horixe bera egitea garaiko gizarteak ageri dituen injustizia, arazo eta desorekekiko.

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren eduki-esparrua zehaztean, ikusten da lotura eta elkarreragin handiak dituela beste oinarritzko konpetentzia batzuekin. Izan ere, konpetentzia horren oinarritzko alderdietako batzuk aztertzean, ikusten da bere baitan biltzen direla ezaugarri hauek: informazioa aztertzea, beste pertsona batzuekin elkarrizketatzea, arazoetarako konponbideak proposatzea, gizarte-gertakarien protagonistak eta interesak identifikatzea eta horien kausak eta ondorioak erlazionatzea. Ildo horretatik, lotura horietako batzuk baino ez ditugu nabarmenduko, aintzat hartuta, orobat, ezaugarri hori bat datorrela oinarritzko konpetentziak sare baten moduan ulertzen dituen ereduarekin. Hala, ikuspegi horren arabera, konpetentzia guztiak daude elkarri lotuta eta elkar elikatzen eta laguntzen dira.

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren eduki-esparruak bat egiten du zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentziaren eduki-esparruaren alderdi hauekin: biek ikertu nahi dituzte zorrotasun zientifikoz gizarte-gertakariak, eta ikuspegi sinplistik gainditzen dituzten planteamenduak egin nahi dituzte. Halaber, ikuspegi ekosistemikoa lantzen dute, gizartearen berezko konplexutasuna ulertzen saiatzeko.

Konpetentzia guztiek informazioa erabiltzeko darabilten modua baliatzen du (informazio-iturriak identifikatzea, informazio garrantzitsua hautatzea eta prozesatzea, informazioaren azterketa kritikoa egitea, informazioa berregitea, etab.), baina, batik bat, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko konpetentziak darabilena.

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziarekin lotura estua dute ezaugarri hauek: elkarrizketatzea, entzutea, proposamenak egin eta iritzia ematea, balorazioak egitea, pertsonen arteko trukeak eta harremanak aintzat hartzea, etab.

Kultura humanistiko eta artistikorako konpetentziarekin partekatzen ditu eduki hauek: ikuspegi kritikoz baloratzea gero eta anitzagoa den gizartearen adierazpen ugariak, nork bere nortasunaren kontzientzia garatzea, gizartearen eboluzioa ulertzea, inguruneko gertakari konplexuei eta gizakien adierazte- eta sortze-modu anitzei buruzko iritzi autonomoak izatea, eta horietan guztietan parte hartzea eta horiez gozatzea.

Ikasten ikasteko konpetentziaren egiturazko printzipioekin lotzen dira, zuzenean, eduki hauek: norberaren autonomia indartzea, nork bere nortasunaren jabetasuna garatzea eta ikaste-prozesuan norberak duen protagonismoa indartzea, eta jarrera intelektualak eta emozionalak erabiltzea.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentziarekin lotzen dira gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren funtsezko alderdi batzuk; esaterako, pertsonen balio eta jarrera hauek garatzea: ardura; autonomia; autokritika; ekin-jardunaren jarraikortasuna; norberak dituen aukeren jabetasuna; arriskuak hartzea, alde onak eta zailtasunak aintzat hartuz, etab.

Eta, azkenik, matematika-konpetentziarekin lotzen dira ezaugarri hauek: kantitatezko eta espaziozko informazioa interpretatzea; logika erabiltzea, arazoak aztertzea; soluzioak bilatzea; pentsamolde abstraktua eratzen joatea; gizarte-gertakarien kantitate-adierazpenei buruzko kalkuluak egitea, etab.

Finean, gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren bidez, ikasleak alfabetatu nahi dira gizarteko eta herritartasuneko jakintza, trebetasun eta balioetan, horiek guztiak eskuratuta, gai izan daitezen informazioa eskuratzeko eta aztertzea, arazoak identifikatzeko, informazioa eta proposamenak interpretatu eta baloratzeko, kausen eta ondorioen arteko harremanak egiteko, entzuteko, elkarrizketatzeko, soluzioak jakinarazi eta proposatzeko, eta jardura-plan koherenteak eta arduratsua egiteko, bai bere buruarekiko, bai inguruko jendearekiko eta gizateria osoarekiko.

Eskolak inguruneari erreparatzen dio, eta gizartearen eta herritarren bizitzan parte hartzen du, errealitate hori aldatzen laguntzen du, eta ikasle bakoitza aldaketa-prozesu horren protagonista bilakatzen da, bere eguneko bizipen eta jardueren testuinguruan.

3. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren dimentsioak

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia **dimentsioak** deituriko multzo handietan dago egituratua. Dimentsio horietako bakoitzak **azpikonpetentzia** batzuk ditu, eta azpikonpetentzia horietako bakoitzerako **ebaluazio-irizpideak** zehaztu dira; azken horiek, hain zuzen, ikasleak egitea espero den zeregin edo eragiketa zehatzak dira, konpetentzia lortu duela erakusten dutenak. Adierazleek argi eta garbi erakusten digute ikasleak zer jakin behar duen eta zer dakien, eta zer-nolako jarrera duen bizitza arduratsua, autonomia, solidarioa, parte hartzailea eta, besteak beste, ekintzailea izateko, bai bere buruarekiko, bai gainerako pertsonekin dituen harremanekiko. Halaber, horixe bera adierazten dute lanarekiko, osasunarekiko, balio demokratikoekiko, ingurumenarekiko eta beste alderdi batzuekiko.

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia hiru dimentsio hauetan banatzen da:

- **Gizarte-errealitatea.**
- **Herritartasuna.**
- **Bizikidetza**

Dimentsio bakoitzaren ezaugarriak adieraziko ditugu, haien eduki eremua zehaztu eta adibideen bidez bistaratzeko.

Gizarte-errealitatea

Historiarekin, giza geografiarekin, ekonomiarekin, soziologiarekin eta beste gizarte-zientzia batzuekin zerikusiak dituen oinarrizko kontzeptuak, trebetasunak eta jarrerak bildu dira dimentsio honetan. Egungo gizartea nola sortu den, nola aldatu den eta egun zer funtzionamendu duen azaltzen dituzte horiek guztiek, eta haren arazo nagusiak eta erronka eta zailtasun batzuk ulertzen laguntzen dute. Jakin behar dugu ea ikasleek denboran zehar gertatutako bilakaera baten ondorio moduan ulertzen duten egungo gizartea, eta gai diren ala ez gizarte-esparruetako dibertsitatea hauteman eta azaltzeko. Aztertu behar da ikaslea gai ote den nolabaiteko egokitasunez azaltzeko gizarteko alderdi ekonomikoak, lan-arlokoak, aisialdikoak, kontsumokoak, gizarte-zerbitzuetakoak eta bestelakoak.

Herritartasuna

Gizarte demokratikoetako eskubide eta betebeharreko lotutako alderdiak biltzen ditu dimentsio honek; besteak beste, eguneroko bizitza, instantzia publikoak, parte hartze aktiboa eta herritartasunaren egikaritzea. Ikaslearen gertuko eremuetatik (familia, lagunartea, eskola) abiatzen da dimentsioaren planteamendua, baina testuinguru zabalagoak ere hartzen ditu, globalizazioaren ondorioak azalarazten dituztenak. Ildo horretatik, herritartasunaren dimentsio honek bereziki erreparatzen dio giza eskubideen eta haurren eskubideen izaera unibertsalari, eskubide horien erabilera-esparru guztietan, eta, halaber, eskubide horien murrizketak edo urraperak pairatzen dituzten pertsonen egoerari erreparatzen die.

Bizikidetzak

Dimentsio honen ardatza gatazkak aztertzean datza, eta bereziki bultzatzen du haiek ebatzi edo konpontzeko alderdiak. Horrez gain, ikasleek balio-sistema bat eraikitzea eta pertsonen arteko bizikidetzak antolatzen duten arauak ezagutarazi nahi ditu.

Balio etikoetan oinarritutako nortasun bat garatzea da dimentsio honen xede-indarretako bat, eta, horrez gain, ikasleek nortasun horretan oinarrituta hartzea beren erabakiak; hala, ikasleek beren gain hartuko dute beren ekintzen erantzukizuna, eta irizpide propioak izan eta autonomiaz jokatu dute gainerako pertsonekin harremanak izatean.

Dimentsioaren beste alderdi batzuk dira arauak identifikatzea eta haiek sortzeko prozesuak ulertzea, adostea eta bere egitea, gizarte-komunitatearen ongizatea hobetzeko ekarpenak egin ditzaten.

Jarraian, taula batean adieraziko dira dimentsio bakoitzaren azpikonpetentziak:

1. dimentsioa: gizarte-errealitatea

1. Errealitate historikoaren bilakaera.
2. Gizartea: funtzionamendua, lorpenak eta erronkak.
3. Lana, ekonomia, produkzioa eta kontsumoa.
4. Informazioa eta komunikazioa.

2. dimentsioa: Herritartasuna

5. Gizarte demokratikoaren oinarriak eta antolamendua.
6. Herritartasunaren egikaritzea edo erabilera arduratsua.
7. Giza eskubideak eta mundu-herritartasuna.

3. dimentsioa: Bizikidetzaren

8. Gatazkak ebatzi edo konpontzea.
9. Norberaren nortasuna eta jarrera etikoa.
10. Bizikidetzaren araupen edo antolamendua.

4. Azpikonpetentzien adierazleak eta mailaketa

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia hiru dimentsiotan banatzen da, eta horiek, halaber, azpikonpetentzia-multzoak dituzte, Lehen Hezkuntzako 4. mailarako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailarako komunak direnak. Ikasturte bakoitzerako, adierazle jakin batzuk zehaztu dira azpikonpetentzia bakoitzean.

4.1. Azpikonpetentzien adierazleak eta mailaketa Lehen Hezkuntzako 4. mailan

Hasierako mailan izango dira egungo gizartearen ezaugarri batzuk (familia, gizartea, kultura) deskribatzeko gai diren ikasleak, hiri nagusiak mapan kokatu eta inguruko zerbitzu publikoetako batzuk ezagutzen dituztenak. Horrez gain, maila honetan dauden ikasleek lanbide ohikoenak eta zenbait gizarte-komunikabide identifikatzeko gai izango dira.

Maila honetako ikasleek gertukoak dituzten zenbait erakunde ezagutuko dituzte (esaterako, udala) eta gizarte demokratikoetako zenbait eskubide eta betebeharrak identifikatuko; horrez gain, batzarretan, bozketetan eta debateetan parte hartuko dute. Ikasle horiek giza eskubide unibertsaleetako batzuk aipatzeko gai izango dira, beren ingurunea zainduko dute eta kultura-adierazpenen partaide izango dira (musika, jaiak, etab.).

Pertsonekin hitz egiteko oinarriko trebetasunak erabiltzen dituzte; hau da, argi eta garbi adieraz ditzakete beren premiak eta nahiak, arretaz jarraitzen dituzten elkarrizketak, hitz egiteko txandak betetzen dituzte eta besteari

entzuteko jarrera azaltzen dute. Pertsonen arteko gatazken aurrean, bidezkoak eta bidegabeak diren irtenbideak bereizten dakite; hau da, pertsonen eskubideak aintzat hartzen dituzten konponbideak eta haien alde batera uzten dituztenak. Norberaren nortasunari erreparatuta, gai dira beren sentimenduak, emozioak eta balioak identifikatzeko. Egoera bidegabeen eta diskriminazio-egoeren aurrean, gai da norberak hartutako erabakiak eta taldearen erabakiak bereizteko. Gai da bere kultura eta ezaugarri pertsonalak eta gainerako pertsonenak konparatu eta antzekotasunak nahiz diferentziak hautemateko. Inguruko eremu eta esparruetako bizikidetzara-arauekin oinarritutakoak ezagutzen ditu, eta badaki zer egoeratan urratzen diren arau horiek eremu eta esparru horietan. Horrez gain, eskolan parte hartzen dute eta arauak proposatzen dituzten bizikidetzara antolatzen. Ikasle horiek eskolarekiko eta haren zaintzarekiko interesa azaltzen dute.

Erdi mailan daude, aurrez adierazitako gaitasunak izateaz gain, gertaerak (ekonomikoak, sozialak, kulturalak, politikoak, zientifikoak, etab.) bereizteko gai diren ikasleak, eguneroko bizitzako zenbait gertakari (langabezia, immigrazioa, bikote-banantzeak, etab.) antolatzen gai direnak, eta gertakarien jatorriaz gogoeta egiteko gai direnak. Aniztasun sozial eta kulturala bereizten dute ikasle horiek, askotariko organizazioak ezagutzen dituzte eta sentikor dira diskriminazio-egoerekiko. Pertsonen oinarritutako premiak eta premia horiek asetzeko jarduera ekonomikoak identifikatzen dituzte. Horrez gain, garrantzizko informazioa hautatzen dute askotariko informazio-iturrietatik, eta testuetako informazioa eta horietan ematen diren iritzia bereizten dituzte. Gizarte-gertakariari buruzko testuak egiteko gai dira.

Maila honetako ikasleak gai dira udalen eta eremu handiagoko gobernuen (autonomia-erkidegoetakoak, estatukoa) eskumen nagusiak identifikatzeko. Funtzionamendu demokratikoa aztertzen dute beren eguneroko bizitzan, eta gizarte-partaidetzako bide batzuk ezagutzen dituzte. Egoera bidegabeen aurrean, balioa ematen diote elkartasunari eta pertsona jakin batzuen konpromisoari. Horrez gain, eskubide unibertsalak eta balioak lotzen dituzte, errespetuz hartzen dituzte diferentziak, eta gogo onez parte hartzen dute ikastetxean antolatzen diren elkartasun-kanpainetan.

Elkarrizketarako trebetasuna adierazten dute, eta, gatazkek ebazteko prozesuan, gai dira negoziatu eta adostasunetara iristeko. Gatazken konponbideei dagokienez, balizko erantzunak aztertzen dituzten bidezkoa eta bidegabea dena bereiziz, eta gai dira biktimei eragindako kalteak konpontzeko. Ikasle horiek pentsamenduen, emozioen eta balioen arteko harremana aztertzerantz irits daitezke, eta gai izaten dira bereizteko, batetik, norberak autonomiaz hartutako erabakiak, eta, bestetik, taldeak egoera bidegabe eta diskriminatzaileekiko hartutako erabakiak. Dibertsitateak dakarren aberastasuna balioesten dute. Oinarritutako bizikidetzara-arauekin ezagutzeaz gain, arau horiek hartzeak dakartzan onurak azter ditzakete, eta gai dira jakiteko noiz ez diren betetzen arau horiek eta zer ondorio dakartzan arau horiek urratzeak. Maila ertaineko ikasleek gertuko esparruetan (eskolan, familian, haurren aisialdi-taldeetan) parte hartzen dute eta bizikidetzara-arauekin proposatzen dituzte.

Hirugarren maila edo **maila aurreratuan** daude hastapen-mailan eta maila ertainean adierazitako gaitasunez gain, eguneroko bizitzako alderdi zehatzetako aldaketa- eta iraunkortasun-prozesuak identifikatzeko gai direnak eta ondorengotzako, aldiberekotasuneko, iraupeneko eta fase-sekuentziazioko oinarrizko adibideak identifikatzeko gai direnak. Ikasle horiek gai dira zenbait ezaugarri demografiko konparatzeko, eta zerbitzu publiko batzuk deskribatzen eta erabiltzen dituzte: liburutegia, kiroldegia, anbulatorioa, suhiltzaile-zerbitzua, etab. Zenbait ondasunen prozesua (jatorria, eraldaketa eta merkaturatzea) identifika dezakete eta etxean eta etxetik kanpo egiten diren lanak eta jarduera ekonomikoak balora ditzakete. Horrez gain, gaiak birziklatzeko eta arduraz kontsumitzeko premiari buruzko gogoeta egiten dute.

Maila honetan daude demokraziaren funtzionamenduari buruzko gogoeta egiten duten ikasleak eta tokiko, autonomia-erkidegoko eta estatuko gobernuetako kide nabarmenak ezagutzen dituzten ikasleak. Ikasle horiek ez dute onartzen inposaketarik eta pertsona guztien parte hartzea balioesten dute eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko. Jokabide baketsuak dituzte eta badakite noiz urratzen diren eskubide unibertsalak, bai beren gertuko ingurunean, bai munduko leku urrunetan. Halaber, balioetsi egiten du askotariko taldeetan (familia, aisialdi-taldeak) duen parte hartzea, eta gozatu egiten du bere kulturako nahiz beste kultura batzuetako zenbait adierazpenekin.

Maila honetan dauden ikasleek elkarrizketa baliatzen dute, eta gai dira beste pertsonaren lekuan jarri eta konponbide errealistak proposatzeko berak parte hartzen duen gatazketan. Zenbait gatazka-motaren arteko konparazio-azterketak egiten dituzte (familia-gatazkak, pertsonenak, tokian tokikoak, nazionalak eta, kasuren batean, nazioartekoak), eta gatazka horien kausak eta ondorioak identifikatzen dituzte. Pertsonen eskubideak aintzat hartuta, beren kabuz hautematen dute pentsatu eta sentitzen dutenaren eta beren balioen arteko koherentzia. Gizarte-egoera bidegabeen aurretan, arrazoibide erraz baina propioen bidez adierazten dituzte bere iritzia eta nahikundeak, taldearen eraginetik at. Norberaren nortasuna eraikitzekeo diferentziek duten balio aberasgarria aitortzen dute. Arauen balioa aitortzen du bizikidetzan antolatzen duten aldetik, baina, horrez gain, bere jokabidean txertatzen ditu, beharrezkoak direla iritzita. Jarrera ona du hainbat eremutan arauak proposatzeko prozeduretan parte hartzeko, eta gogotsu parte hartzen du ikastetxeko funtzionamenduan.

1. dimentsioa: GIZARTE-ERREALITATEA

1. Errealitate historikoaren bilakaera.

- a. Gertakari naturalengandik bereizten ditu gertakari historiko eta sozialak eta azken horiek ere bereizten ditu elkarren artean (gertakari ekonomiakoak, sozialak, kulturalak, politikoak, zientifikoak, etab.).
- b. Zenbait gertakari eta prozesu historiko nabarmen ezagutzen ditu, kronologikoki ordenatzen ditu eta aldaketako nahiz iraunkortasuneko prozesuak identifikatzen ditu gizateriaren aroetako eguneroko bizitzako oinarrizko alderdietan (etxeak, komunikazioa, jantziak, tresnak, etab.).

- c. Oinarrizko denbora-erreferentziak interpretatzen eta adierazten ditu (iragana, oraina eta etorkizuna; eguna, astea, hila, urtea, hamarkada eta mendea) eta iraupeneko eta fase-banaketako oinarrizko adibideak identifikatzen ditu.
- d. Gertakari historiko, tradizio eta ohitura batzuen kausa anitzak identifikatzen ditu eta bere bizitzaren zenbait alderdirekin lotzen ditu.
- e. Emakumeen, gizonen eta herrien baterako ekarpen moduan balioesten du historia.

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-gertakariak eta gertakari naturalak bereizten ditu. - Aldaketak identifikatzen ditu zuzenean bizi dituen gertakarietan. - Eguneroko bizitzako gertakarien denbora-kokapena atzitzen du (aurretik eta ondoren, iragana, oraina eta geroa). - Eguneroko bizitzako gertakarien eta inguruko gizarte-egitateen kausa agerikoenak identifikatzen ditu. - Aztertutako gertakarien protagonista nagusiak identifikatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Izaera ezberdineko gizarte-gertakariak bereizten ditu eta bere inguruko gizarte-gertakari nabarmenen jatorri historikoa ezagutzen du. - Kronologikoki ordenatzen ditu gertakariak eta gai da bizi dituen gizarte-gertakarietako ageriko aldaketak deskribatzeko. - Denbora-magnitude bat baino gehiago erabiltzen du gertakariak eta prozesuak denboran kokatzeko, eta bakoitzari dagokiona aukeratzen du: eguna, astea, hila, urtea, hamarkada, mendea. - Gertakari baten kausa bat baino gehiago deskribatzen ditu eta gertakari horren zenbait ondoriorekin lotzen. - Gertakarien egile diren pertsonak aipatzen ditu bere azalpenetan. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gertakari historikoak deskribatzen ditu eta egungo gizartearen ezaugarriekin erlazionatzen. - Bere eguneroko bizitzako eta bere inguruneke aldaketak identifikatzen eta denboran kokatzen ditu. - Beren iraupenaren arabera sailkatzen ditu gertakari eta prozesuak eta horien faseak bereizten ditu. - Gizarte-gertakarien jatorriekiko kezka azaltzen du, eta garrantziaren arabera sailkatzen ditu haien kausak. - Gertakariak burutzen dituzten pertsonen, gizon zein emakumeen, buruzko datu gehiago jakiten saiatzen da.

2. Gizartearen funtzionamenduaren eta haren lorpen eta erronken ulermena.

- a. Egungo gizartea deskribatzen du eta haren familia-, gizarte- eta kultura-ezaugarriak aztertzen ditu.
- b. Inguruneke gizarte- eta kultura-aniztasunaren adierazpenak aztertzen ditu eta izaera eta helburu anitzak dituzten erakundeak daudela ikusten du (kultura-elkarteak, sindikatuak, gobernu kanpoko erakundeak, alderdi politikoak, erlijio-taldeak...).
- c. Egungo gizartearen zenbait erronka ikusten ditu (erronka demografikoak, ekonomikoak, etab.), eta sentikor azaltzen da gizarteko egoera bidegabe edo diskriminatzaileen aurrean.
- d. Landa- eta hiri-inguruneetako ezaugarri demografikoak eta lurralde-ezaugarriak konparatzen ditu, eta mapan kokatzen ditu hiri nagusiak.

- e. Inguruko zerbitzu publiko nagusien funtzionamendua azaltzen daki (liburutegia, kiroldegia, hondakinen tratamendua, suhiltzaileak, anbulatorioa...).

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Egungo gizarteko familia-antolamenduak adierazten daki eta familiaren ezaugarri eta egiteko batzuk azaltzen ditu. - Gizarteak oinarrizko alderdietan dituen adierazpen-modu anitzak ezagutzen ditu: jantziak, janariak, aisia, etab. - Langabezia, pobrezia, immigrazioa eta antzeko arazoak identifikatzen ditu. - Herriko habitaten oinarrizko ezaugarriak identifikatzen ditu. - Erabiltzen dituen zerbitzu publiko batzuk identifikatzen ditu eta zer egiteko edo helburu duten adierazten. 	<ul style="list-style-type: none"> - Egungo gizartearen oinarrizko gizarte-ezaugarriak deskribatzen ditu. - Gizarte-egitateak adierazteko edo agertzeko modu anitzak bereizten ditu (ideiak, sinesmenak, interesak...). - Egungo gizarteko zenbait arazoren zuzeneko arrazoiak azaltzen ditu eta arazo horien protagonistak identifikatzen ditu. - Landa- eta hiri-eremuak sailkatzen ditu haien ezaugarrien arabera, eta mapan kokatzen ditu hiri nagusiak. - Erabiltzen dituen zerbitzu publikoen funtzionamendua deskribatzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Askotariko gizarte-gertakarien arteko loturak azaltzen ditu. - Estereotipo eta eskemetatik harago doa egungo gizarteari buruzko azalpenak ematean. - Pertsonak eta taldeak duintasunez bizitzeko dituzten zailtasunez jabetzen da. - Landa- eta hiriguneetako arazoetako batzuk deskribatzen ditu eta haien balizko konponbideak baloratzen ditu. - Gizartean zerbitzu publikoak ematen dituzten pertsona eta entitateen lana balioesten du.

3. Lana, ekonomia, produkzioa eta kontsumoa.

- a. Pertsonen oinarrizko beharrianak identifikatzen ditu eta eguneroko bizitzan premia horiek asetzen dituzten ondasun eta zerbitzu batzuen prozesuak azaltzen ditu (jatorria, eraldaketa eta merkaturatzea).
- b. Inguruko lanbide ohikoenak identifikatzen eta aztertzen ditu, eta Euskadiko sektore eta jarduera ekonomiko nabarmenenak ezagutzen eta haien tamainak eta zenbait antolamendu-alderdi bereizten ditu (izaera publikoa edo pribatua duten, etab.).
- c. Lanerako eskubidea balioesten du eta, gizarteko lan-esparruan, pertsonen arteko berdintasuna eta haien segurtasuna bermatzeko premia ikusten du, estereotipo sexistak, xenofoboak eta lan-esplotazioa arbuaitzen ditu, eta elkartasuna adierazten ditu lanik gabe dauden pertsonetikiko.
- d. Etxean egiten diren jarduera ekonomikoak ezagutzen ditu, etxekoen oinarrizko premiak asetzeko garrantzi handia dutela daki, eta arduraz hartzen ditu berari dagozkion egitekoak.
- e. Badaki zer helburu duten publizitate-iragarkiek, ulertzen du soilik beharrezkoa dena kontsumitu behar dela, ez direla ondasunak xahutu behar, birziklatu egin behar dela, eta kontsumo solidarioaren garrantziak ohartzen da.

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<p>- Pertsonen oinarrizko premia identifikatzen ditu eta premia horiek asetzeko moduak adierazten ditu (aisia, adiskidetasuna, kontsumoa, etab.).</p> <p>- Inguruko ohiko lanbideak ezagutzen ditu eta horien egiteko zehatzak adierazten.</p> <p>- Lanbide batzuen arriskuak eta horietan hartu beharreko babes-neurriak identifikatzen ditu.</p> <p>- Bere etxean egiten diren lanak aipatzen ditu eta zertarako egiten diren azaltzen.</p> <p>- Publizitate-iragarkien helburua ulertzen du eta birziklatzeko eta kontsumoan aurrezteko egin ditzakeen zenbait gauza identifikatzen ditu.</p>	<p>- Produktu eta zerbitzu batzuen oinarrizko prozesua azaltzen du.</p> <p>- Lanbide eta enpresa ugari ezagutzen ditu, horien aldeak adierazten ditu (tamaina, etab.) eta oinarrizko sektorearen arabera sailkatzen (nekazaritza, merkataritza, industria, etab.).</p> <p>- Emakume eta gizonen eskubide gisa balioesten du lana, eta lan-esplotazioko zenbait modalitate deskribatzen ditu (haurrei lan eginaraztea).</p> <p>- Etxeko lanen zailtasun-mailak bereizten ditu eta lan horien familiako kideen artean banatu behar direla onartzen du.</p> <p>- Jendea manipulatzeko edo iruzurrezko publizitatea zabaltzeko zenbait modu hautematen ditu, eta badaki ez direla gauzak alferrik xahutu behar.</p>	<p>- Eguneroko bizitzako zerbitzuren bat sortu edo emateko zailtasuna aztertzen du eta haien faseak, pertsonak eta egiturak identifikatzen ditu (fabrikak, dendak, etab.).</p> <p>- Enpresen izaera publikoa edo pribatua bereizten du eta haien oinarrizko egitura eta funtzionamendua azaltzen du.</p> <p>- Laneko diskriminazioa eta esplotazioa arbuiatzen ditu eta lanik gabe dauden pertsonen laguntzearen alde agertzen da.</p> <p>- Arbuiatu egiten du emakumeak diskriminatuak izatea etxeko lanen banaketa egitean.</p> <p>- Gogoeta egiten du kontsumo-erabaki pertsonalen garrantziaz eta alferrikako xahutze-jarduerek ingurumenean duten eraginaz.</p>

4. Informazioa eta komunikazioa.

- Familiako, gizarteko edo historiako gertakariak ezagutzeko eta aztertzekeo behar den informazio garrantzitsua hautatzen du askotariko informazio-iturrietatik, bai iturri jarraituetatik (testu idatziak), bai iturri ez-jarraituetatik (mapak, grafikoak, irudiak, etab.).
- Gizarte-komunikazioko zenbait komunikabide identifikatzen ditu (prentsa, irratia, telebista, Internet, etab.) eta horien egitekoak deskribatzen.
- Informazioa, iritzia eta propaganda (politikoa, publizitatea, etab.) bereizten ditu testu errazetan, eta arbuiatu egiten du hizkuntza edo publizitate-irudi sexistak edo iraingarriak erabiltzea.
- Historia, gizarte, ekonomia eta beste alor batzuetako gertakari eta prozesuei buruzko deskribapenezko eta azalpenezko testu jarraitu eta ez-jarraitu errazak idazten ditu.

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<p>- Ingurunekeo gairen bat proposatzen bazaio, gai horri buruzko informazioak hautatzen ditu.</p>	<p>- Askotariko informazioak hautatzen ditu eta egoki erabiltzen ditu gizarte-gertakari zehatzak azaltzeko.</p>	<p>- Familiako edo gizarteko gaiei buruzko informazio garrantzitsua eta bigarren mailako nahiz interesik gabeko informazioak bereizten ditu.</p>

<ul style="list-style-type: none"> - Inguruan dituen komunikabide ohikoenak adierazten ditu eta horien ezaugarri batzuk bereizten ditu. - Informazioko eta propagandako egoerak bereizten ditu biziaren errealean. - Bere bizipen-eremuko gizarte-egoera edo arazoren baten alderdiak deskribatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikabideak eta horien egiteko zehatzetako batzuk lotzen ditu (informazioa ematea, aisialdia, etab.). - Inguruko gizarte-arazoren bati buruzko informazio objektiboak eta subjektiboak bereizten ditu eta hizkuntza edo irudi sexistak erabiltzen diren hautematen du. - Testu labur eta errazak idazten ditu (jarrituak), gizarte-egoerak edo -arazoak azaltzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-komunikabideak balioesten ditu, informazio-iturriak diren aldetik. - Arbuiatu egiten du publizitatean edo komunikabideetan pertsonen edo taldeen buruzko adierazpen sexistak edo diskriminatzaileak egitea. - Irudiak eta eskemak egiten ditu gizarte-egoera jakin bati buruzko azalpenak emateko.
---	---	--

2. dimentsioa: HERRITARTASUNA

5. Gizarte demokratikoaren oinarriak eta antolamendua.

- a. Eskolaren eta udalaren egiteko nagusiak eta haien antolamendua ezagutzen ditu.
- b. Herriko, probintziako, autonomia-erkidegoko eta estatuko gobernuen eskumenak eta jardun-eremuak adierazten ditu eta gobernu horietako kide nabarmenenak identifikatzen ditu.
- c. Bere eguneroko bizitzan, funtzionamendu demokratikoa aztertzen du, eta ikusten zer egoeratan pertsonen askatasunez hartzen dituzten erabakiak, noiz ematen zaien berdintasunezko eta justiziazko tratua, noiz jarduten duten arduraz eta elkartasunez eta zer egoeratan ez den inor diskriminatzen.
- d. Gizarte demokratikoko eskubide (botoa ematea, norberaren ideiak askatasunez adieraztea, etab.) eta betebeharrak (zergak ordaintzea, legeak betetzea) jakinak aipatzen edo mugatzen ditu.

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxearen lehen zeregina eta udalaren egiteko nagusia adierazten ditu. - Badaki zein diren lehendakaria eta estatuko gobernuburua eta botere exekutiboaren egikaritzarekin lotzen ditu. - Eguneroko bizitzan, inposaketa arbitrarioko egoerak, egoera bidegabeak eta askatasun gabeziako egoerak bereizten ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Eskolaren funtzionamendua eta udalaren mendeko zerbitzuren batena deskribatzen ditu. - Tokiko, autonomiako eta estatutuko administrazioen oinarriko egiteko batzuk bereizten ditu. - Xehetasunez azal ditzake funtzionamendu demokratikoa eta errespetua ageri duten eguneroko bizitzako egoerak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Eskolaren eta udalaren osaera eta oinarriko antolamendua azaltzen ditu. - Balioetsi egiten du administrazioek kudeatzeko eta arazoak konpontzeko egiten duten lana. - Pertsonen eguneroko bizitzan askatasunak ardurak erabiltzea balioesten du eta elkartasunezko jokabideak dituzten pertsonekin.

- Adibideen bidez azaltzen du pertonek noiz betetzen dituzten arduraz beren eskubide eta betebeharrak.	- Herritarren zenbait oinarrizko eskubide eta betebeharrak azaltzen dituzte eta horiek egikaritzeko egoerak deskribatzen dituzte (esaterako, bozketak, ideien azalpena, etab.).	- Herritartasuna erabiltzean, eskubideak ez ezik, betebeharrak ere badirela ulertzen du.
--	---	--

6. Herritartasunaren egikaritzea edo erabilera arduratsua.

- Eskolako gaiei buruzko batzar eta bozketetan parte hartzen du.
- Iritzi eta interes diferentziak balioesten ditu eta gizarte-partaidetzako bide batzuk ezagutzen ditu (auzotarren bilerak, manifestazioak, firma-bilketak, eskolako OOG, etab.).
- Hainbat elkarte-mota ezagutzen ditu, eta pertsonen konpromisoa (monitore, entrenatzaile, boluntario, prestatzaile eta abarrena) eta norberaren talde-partaidetza balioesten ditu.
- Eztabaidetan parte hartzen du, txandak eta iritziak errespetatzen ditu eta inposaketak arbuiatzen ditu familian, eskolan eta lagunartean.

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
- Ikasleen batzarren helburu eta horien funtzionamendua ulertzen ditu.	- Zuzenean eragiten dioten eskolako bizitzako gairi buruzko iritzia edo botoa ematen du batzarretan, arauak eta gainerako partaideen iritziak errespetatuz.	- Batzar eta bozketetan parte hartzen du eta guztiek hartutako erabakiak onartzen ditu, pertsona edo talde jakinek egindako inposaketa-jarduerak arbuiatuz.
- Gizarte-partaidetza zuzeneko guneak identifikatzen ditu (ikastetxea, auzoa, elkarteak, etab.).	- Parte hartzen duten pertsonen iritzi eta interes anitzak onartzen ditu.	- Iritzi diferentziak balioesten ditu eta askatasunez adierazteko eskubidearekin lotzen.
- Inguruan dituen elkarten izenak adierazten ditu eta horietan lan egiten duten monitoreen eta bestelako pertsonen lana deskribatzen du.	- Elkarteak sailkatzen ditu irizpideren bat erabiliz (funtzionamendu-esparrua, antolamendu-eredua, etab.).	- Aisialdiko elkarten eta bere ingurune elkarteetan parte hartzeko moduak aztertzen ditu.

7. Giza eskubideak eta mundu-herritartasuna.

- Giza eskubide unibertsal batzuk eta hauren zenbait eskubide identifikatzen ditu eta horiek balioekin erlazionatzen.
- Eguneroko bizitzan, harreman baketsuak eta errespetuzkoak ditu pertsona guztiekin (batik bat, bestelako sexua, sexu-joera, adina, sinesmenak, arraza edota bestelako ezaugarriak dituztenekin).
- Enpatia azaltzen du abusua, bidegabekeria, gerrak edo diskriminazioak jasan dituzten pertsonekin.
- Ingurunea zaintzeko, arduraz kontsumitzeko, bide-hezkuntzako eta bestelako jardueretan inplikatzeko da, eta bere ekintzek planetaren osasunean eta gizateriaren ongizatean duen eragina baloratzen du.

- e. Giza eskubideak urratzen diren zenbait egoera ezagutzen ditu eta mapan kokatzen daki planetako zer lekutan dauden gerrak, hondamendi naturalak, pobrezia, etab.
- f. Bere kulturaren edo beste kultura batzuen adierazpen anitzekin gozatzen du (musika, gastronomia, jantzi tipikoak, arte plastikoak, etab.).

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Haurren zenbait eskubideren eta giza eskubide batzuen esanahi zehatza ulertzen du. - Pertsona guztiek eskubide berdinak dituztela ulertzen du, ezaugarri diferentek izan arren (ezaugarri fisikoak, sexua, jatorria, etab.). - Abusuzko, bidegabekeriak eta diskriminaziozko egoerak bereizten ditu. - Ikastetxeak prestatutako jarduera solidarioetan parte hartzen du. - Pertsonen oinarrizko eskubideak urratzen diren egoerak identifikatzen ditu. - Bere inguruan kultura-adierazpen anitzak izatea balioesten du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Egoera errealekin lotzen du eskubideen erabilera eta horien urraketa-kasuak hautematen ditu. - Errespetua adierazten die gainerako pertsonari eta bere eskubide berdinak aitortzen dizkie. - Bortxazko egoerak eta egoera bidegabeak deskribatzen ditu eta horien ondorioak pairatzen dituzten pertsona edo taldeekin lotzen. - Ingurumena zaintzeko jardueri buruzko informazioa eta injustiziak pairatzen dituzten pertsonekin egiten diren elkartasun ekintzei buruzko informazioa biltzen du. - Espazioan kokatzen du (esaterako, mapetan) zer lekutan urratzen diren giza eskubideak eta non dauden pertsonak mehatxatuta edo arriskuan. - Ingurunean kultura-adierazpen anitzen alderdi positiboak azaltzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Pertsonen oinarrizko eskubideak urratzeko kausaren bat hautematen du eta gai da horiek azaltzeko. - Pertsona guztiei, eta, batik bat, haurrei eskubide unibertsalak aitortzea balioesten du. - Injustiziaren bat pairatzen duen jendearengandik gertu sentitzen da. - Balioetsi egiten ditu gerrak, pobrezia, injustizia eta antzekoak pairatzen dituzten pertsonen elkartasun-kanpainak. - Giza eskubideen urraketa-egoerak, pobrezia-egoerak, gerra-egoerak eta antzekoak aztertzen ditu eta horien kausa eta ondorioren bat adierazten du. - Gozatu egiten du kultura-adierazpen askotarikoak ikusten eta horietan parte hartzen.

3. dimentsioa: BIZIKIDETZA

8. Gatazkak ebatzi edo konpontzea.

- a. Jarrera eraikitzailea azaltzen du gatazken eta horiek konpontzeko prozesuen aurrean, beste pertsonaren lekuan jartzen da eta elkarrizketa eta negoziazioa erabiltzen ditu elkar ulertzeko tresna gisa.
- b. Inguruko harreman- eta gatazka-motak aztertzen ditu, haien protagonistak, kausak eta ondorioak identifikatzen ditu eta pentsamenduak, sentimenduak eta ekintzak bereizten ditu.

- c. Konponbideak proposatzen ditu gatazkentzat, horietan parte hartzen duten pertsonen (eragile, biktima eta ikusleen) eskubideen ikuspegitik eta haien beharrianak asetzeko premiaz ohartuta.
- d. Pertsonen arteko harremanetan gizarte-trebetasunak eta emozioak kontrolatzeko jarrerak identifikatzen eta garatzen hasi da.

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Gatazka baten aurrean, gainerako pertsonak entzuten ditu eta, bere iritzia emateko, hitz egiteko txandak errespetatzen ditu. - Familiaren eta banakoaren gatazkak identifikatzen ditu eta haien arrazoietako batzuk adierazten. - Badaki gatazken konponbideek bidezkoak izan behar dutela. 	<ul style="list-style-type: none"> - Elkarrizketa baliatzen du gatazkak konpontzeko adostasunak bilatzeko. - Gatazkak deskribatzen ditu eta haien kausak, ondorioak eta protagonistak deskribatzen ditu. - Gatazken konponbide arrazoizkoak eta bidezkoak bereizten ditu konponbide bidegabeen aldean, eta gatazka batek konponbide bat baino gehiago izan dezakeela ulertzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gatazken aurrean, bestearen lekuan jartzen da eta haien konpontzeko proposamen eraginkorrak egiten ditu. - Familiako, tokian tokiko, nazioko eta nazioarteko gatazkak konparatzen ditu. - Konponbide bidegabean aurrean, arrazoizko eta bidezko konponbideak aztertzen ditu eta biktimei eragindako kalteak konpontzeko proposamenak egiten ditu.

9. Norberaren nortasuna eta jarrera etikoa.

- a. Aztertzen eta ikusten du beharrezkoa dela bere pentsamenduekin, emozioekin eta eraikitzen ari den balio-sistemarekin bat egingo duen jarrera etiko eta koherenteak izatea.
- b. Irizpide propioz jarduten du, erabakiak hartzen ditu gizarte-egoeretan eta irizpide kritikoz baloratzen ditu beste erlijio, etnia, sexu, kultura edo ezaugarriko pertsonetikiko aurreiritziak eta diskriminazio-jarduerak.
- c. Bere izatea osatzen duten ezaugarriak (nortasuna, sexua, gogoko dituen gauzak, etab.) eta bere harreman afektiboak identifikatzen ditu.
- d. Diferentzia kulturalak, pertsonalak eta bestelakoak balioesten ditu, bere izatea aberasteko elementuak diren aldetik.

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Bere eta besteren emozioak ulertzen ditu. - Egoera berrietan izaten dituen jokabideak ordenatzen ditu, jolasetan entrenatuz eta eskolako zereginak landuz. - Egoera bidegabean eta diskriminazio-egoeren aurrean, gai da norberak hartutako erabakiak eta taldearen erabakiak bereizteko. 	<ul style="list-style-type: none"> - Pentsamenduak, emozioak eta balioak identifikatzen eta bereizten ditu. - Bere bulkadak kontrolatzen ditu eta bere jokabideen ondorioak baloratzen ditu. - Egoera bidegabean eta diskriminazio-egoeren aurrean, norberak autonomiaz hartutako erabakien eta taldearen presiopean hartutako 	<ul style="list-style-type: none"> - Pentsamenduen, emozioen eta balioen arteko harremanak ikusi eta horien arteko koherentzia eta koherentzia faltak aztertzen ditu. - Arrazoibide morala kanpo-arauetan oinarritzen da oraindik. - Egoera bidegabean aurrean, modu asertiboan eta arrazoituz adierazten ditu bere iritzia, beharrianak eta nahiak.

- Kultura-diferentziak ikusten ditu bere inguruan.	arteko diferentziaz hausnartzen du. - Gai da bere kultura eta ezaugarri pertsonalak eta gainerako pertsonenak konparatu eta antzekotasunak nahiz diferentziak hautemateko.	- Gogoeta egiten du diferentzia pertsonalek, kulturelek eta bestelako norberaren nortasuna eta balioak eraten joateko egiten duten ekarpenaz.
--	---	---

10. Bizikidetzaren araupen edo antolamendua.

- Elkarbizitza eta bizikidetzaz arazoak konpontzeko gizarte-arauak onartzen eta erabiltzen ditu.
- Arauak urratzen diren egoerak identifikatzen eta bere gain hartzen ditu, eta urratze horien ondorioak aurreikusten ditu.
- Gogoz parte hartzen du bizikidetzaz arauak adostasunez sortzeko prozesuetan eta bete egiten ditu guztien artean adostutako konpromisoak.
- Ikastetxeko kide sentitzen da, eskola-jardueretan inplikatu da eta haiekin gozatu da.

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Gainerako pertsonen asmoak ulertzen ditu. - Kirolaren, talde-jokoen eta antzekoen bidez, taldean lan egiteko behar diren trebetasunak identifikatzen ditu (konfiantza, ardurak banatzea, komunikazioa, etab.). - Eskolan eta familian pertsonen jokabideak antolatzen dituzten oinarriko bizikidetzaz arauak ezagutzen ditu (eskubide/betebeharrak). - Eskolan, etxean edo kalean arauak noiz urratu diren jakiten du eta badaki horrek zer ondorio dakartzan. - Eskolako bizikidetzaz antolatzeko arau-proposamenak egiteko prozesuetan parte hartzen du, baita ikasgelan, jolas-lekuan, familian eta beste esparru batzuetan ere. - Ikastetxeaz eta haren zaintzaz interesatzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gainerako pertsonen ikuspuntuak ulertzen ditu. Talde-harremanetarako dituen gaitasunak probatzen ditu. - Ikasgelan, eskolan eta familian arau adostuak izatearen alde onak aztertzen ditu. - Eskolan, etxean edo kalean arauak noiz urratu diren eta arau-hauste horiek zer ondorio ekarri duten azaltzen du. Ardurak hartu ohi ditu bere gain bere ohiko harreman-esparruetan. - Ikastetxeari eta haren funtzionamenduari, jarduerari eta gainerako alderdiei buruzko ideiak ematen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Negoziazio trebeak egiten ditu gainerako pertsonekin. Bere buruaren irudi bat egiten du askotariko bizikidetzaz eremutan. - Gainerako pertsonekin dituen harremanetarako arauak izatearen premia bereganatu du bere eguneroko jokabidean. - Arauen urratze-egoerak aztertzen ditu askotariko eremuetan eta urratze horien ondorioez hausnartzen du. Parte hartzen duen jardueretan (kirol-ekintzak, kultura-jarduerak, jarduerak artistikoak, etab.) bizikidetzaz antolatzeko arauak proposatzeko prozesuetan parte hartzen du - Gogoz parte hartzen du ikastetxeko jardueretan eta eguneroko funtzionamenduan.

4.2. Azpikonpetentzien adierazleak eta mailaketa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan

Hasierako mailan izango dira gizarte-errealitatearen oinarritzko ezaugarriez modu osatu gabean jabetzen diren ikasleak eta errealitate horretako zenbait arazo identifikatzeko gai direnak. Ikasle horiek oinarritzko konpromiso- eta partaidetza-maila adierazten dute bizikidetzaren eremuan. Gizarte-gertakari eta -prozesu batzuk ezagutzen dituzte, eta beren eguneroko bizitzan gertatzen diren aldaketa agerikoenak deskribatzen dituzte. Azalpenak ematean, kausa argienak deskribatzen dituzte eta erraz ikusten dute ondorioen bat; gainera, ekintza jakin batzuk izan ditzaketen ondorioak iragartzen dituzte eta gizarte-arazoak izan ditzaketen balizko konponbideak baloratzen dituzte.

Bere inguruan ohikoak diren komunikabideak ezagutzen dituzte, haien funtzioetako batzuk azaltzen dituzte eta informazioa eta iritzia bereizi ohi dute. Horrez gain, informazioa lortu, hautatu eta beren azalpenetan erabiltzeko gai dira.

Erabili ohi dituen zerbitzuak deskribatzen dituzte, eta oinarri-oinarrian ulertzen dute sistema ekonomikoa (merkatua, ondasun eta zerbitzuen produkzioa, etab.). Kontsumitzaile diren aldetik, kontsumismoak ekar ditzakeen kalte batzuez jabetzen dira, eta kontsumitzaile arduratsuak izateko zenbait modu deskribatzen dituzte.

Gizarte demokratikoen berezko askatasun batzuk azaltzen dituzte eta beren inguruko gertaera jakinekin (esaterako, hauteskunde politikoekin) edo beraiei zuzenean eragiten dizkieten alderdiekin lotzen; halaber, alderdi politikoak eta beste gizarte-organizazio batzuk identifikatzen dituzte. Herritarrak diren aldetik, beren eskubide eta betebeharez jabetzen dira ikasleak. Udaleko, autonomia-erkidegoko, estatuko eta nazioarteko erakunde politiko nabarmenenak identifikatzen dituzte eta loturak egiten dituzte haien funtzio praktikoetako batzuekin. Giza eskubideak babestearen alde azaltzen dira, eta haiek urratuak izan diren kasuak aztertzen dituzte laguntza eta informazioa ematen zaienean.

Bizikidetzaren alorrean, hainbat eremutan gertatzen diren izaera anitzeko gatazka gertukoak zein urrunekoak deskriba ditzakete, eta ulertzen dute zer balio handia duen elkarrizketa erabiltzeak haiek ebatzi edo konpontzeko. Hala ere, gatazken ikuspegi sinplifikatua izan ohi dute. Pertsonen hainbat jarrera bereizten dituzte, esaterako, axolagabekeria, onarpena eta ukapena; eta balioa ematen diote hainbat eremutan (eskolan, familian, elkarteetan, eta beste batzuetan) arau adostuak izateari. Beste sexu, erlijio, etnia edo ezaugarri batzuetako jendearekiko egoera bidegabeak edo diskriminazio-egoera bereizten hasten dira, baina ez dute irizpide argi eta autonomorik egoera horien aurrean nola jokatu behar duten eta zer erabaki hartu behar dituzten jakiteko. Gatazketan bitartekari-lanak egiten eta haiek konpontzen saiatzeko diren nazio-mailako eta nazioarteko zenbait erakunde ezagutzen dituzte. Horrez gainera, ikastetxearen partaide sentitzen dira eta hura zaindu behar dutela uste dute.

Konpetentziaren **erdi mailan** izango dira, hastapeneko mailan adierazitako trebetasunez gain, alderdi sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta bestelakoak lotzeko gai diren ikasleak. Ikasle horiek, gizarteari erreparatzen jartzen direnean, gizarteko gertakarien arteko lotura sinpleak ikusten dituzte eta gertakari horien konplexutasuna eta dibertsitatea hautematen dute. Maila hori duten ikasleak gai dira balioesteko zer-nolako ekarpena egiten duten diferentzia kulturek, sozialek, etnikoek edo sexukoek norberaren nortasuna finkatu eta norberaren balioak osatzeko.

Askotariko gizarte-informazioak erabiltzen dituzte gizarte-gertakariari buruzko hipotesiak planteatzeko edo horiei buruzko azalpen koherenteak emateko. Beren konklusio propioak ateratzeko, datu bakanen informazio garrantzitsua hauta dezakete edo ikuspegi ezberdinak dituzten arrazoibideen artean aukeratu. Gizarte-gertakariak azaltzean, gertakari edo prozesu bakar baten kausa azter ditzakete edo kausa bakar batek eragindako ondorio anitz. Halaber, azalpen sinpleak eman ditzakete, baina oraindik laguntza behar dute lortutako emaitzen arteko loturak egiteko.

Gizartean gertatzen diren aldaketa-prozesuez ohartzen dira eta haien jatorria zein den jakin nahi izaten dute. Egungo gizartearen oinarritzko ezaugarrietako batzuk azaltzen dituzte, haiek gizartearen bilakaera historikoaren fase baten moduan ulertuz, eta, ondorioz, prozesu horien iragana, aldaketak eta etorkizuneko iragarpenak ulertzen dituzte. Emakumeek eta gizonek gizarte-gertakarietan duten protagonismoa ulertzen dute.

Enpatia adierazten dute egoera gatazkatsuetan gertatzen dena ulertzeko, eta gai dira elkarrizketaren bidez konponbideetara iristeko. Bidezkoa denaren ikuspuntutik arrazoi ditzakete gatazken soluzio-aukerak eta egoera gatazkatsuetan parte hartzen duten pertsonen dituzten beharrizanak. Gatazkan konpontzen saiatzen diren erakundeek ekintzak aztertzen dituzte.

Haien inguruan egoera bidegabeak edo diskriminatzaileak ematen badira, gai dira jakiteko noiz hartzen diren erabakiak autonomiaz eta noiz taldeak egindako presioaren eraginez. Ikastetxearen funtzionamendua hobetzeko ideiak emateko gai dira, eta ideia horiek errespetuz adierazten dituzte. Arauak urratzen dituzten jokabideak aztertzen dituzte beren ingurunean, eta arazoei irtenbidea emateko proposamenak balioesten dituzte.

Konpetentziaren **maila aurreratuan** izango dira, hastapen-mailan eta ertainean adierazitako trebetasunez gain, gizarteko gertakariak dibertsitatearen eta aniztasunaren ikuspegitik arrazoitzeko gai diren ikasleak, eta, horrez gain, gizarte-gertakari eta -prozesuetan etengabeko aldaketako elementuak hautematen dituztenak.

Ikasle horiek datuak erabiltzen dituzte gizarte-arazoak aztertzeko, eta horiei buruzko ikuspegi edo perspektiba anitzak hauteman ditzakete, eta soluzioak prestatzeko edo aukera bat baino gehiago baloratzeko gai izaten dira. Gizarteko egitate eta gertakarien arrazoiak bilatzeko hipotesiak egiten eta konprobatzen saiatzen dira. Gizarte- edo kultura-alorreko gertakariak hitz

egitean, xehetasun handiz eta zehaztasunez deskribatzen eta arrazoitzen dituzte beren iritziak.

Euskal gizarteak esparru handiagoen gizarte- eta kultura-garapenari egindako ekarpenak balioesten dituzte. Badakite zer erronka dituen gizarte honek, eta ikuspegi eraikitzaile batetik aztertzen dituzte arazoak, batik bat, beren kulturari eta tradizioei dagozkienak, eta gizarte modernoek berezkoak dituzten beste arazo batzuk.

Gizartearen eta haren erakundeen, zerbitzuen eta bestelako elementuen funtzionamendua azertzean, funtzionamendu horren konplexutasuna hautematen dute, eta tokian tokiko eskalen eta eskala globalen ideiak ulertzen dituzte. Halaber, emakumeen eta gizonek gizarteak garatzeko eta hobetzeko egin dituzten ekarpenak balioesten dituzte.

Gizarte-talde bat baino gehiagoren partaide dela ulertzen dute, badakite zein diren beren eskubide eta betebeharrak eta zer ardura eta partaidetza-aukerak dituzten. Autokritikarako gaitasuna garatu dute eta modu eraikitzailean parte hartzen dute arazoak konpontzeko prozesuetan. Diskriminazio-modu anitzak identifikatzen dituzte beren ingurunean eta gertukoak ez dituzten eremuetan, oinarrizko eskubideak bortxatuak dituzten pertsona eta kolektiboekiko elkartasuna adierazten dute eta eskubide horien defentsan jarduten duten elkarte, gobernuz kanpoko erakunde eta nazioarteko erakundeen lana balioesten dute.

Jarrera baikorra dute gatazken aurrean, eta negoziazioa baliatzen dute gainerako pertsonekin ulertzeko eta gatazkak konpontzeko. Gatazkak modu naturalean bizi dituzte, norberaren aldaketarako eta hazkuntza pertsonalerako bidea diren aldetik. Irizpide kritikoz azter ditzakete gatazken kausak eta ondorioak, eta irtenbideak planteatzen dituzte, arazoibideak erabiliz eta bidezkoak irizten dituzten aukeren alde eginez. Desadostasunak eta jarrera kritikoak balioesten ditu, elementu aberasgarriak eta eraikitzaileak izan daitezkeen aldetik.

Adierazpen asertiboen bidez azaltzen ditu egoera diskriminatzaile eta bidegabeekiko dituzten iritziak. Beren kabuz azter dezakete zer-nolako balioa duen adostasunak bizikidetzaren antolatze arau demokratikoak ezartzeko prozesuan. Beren gizarte-nortasunaren barruan ikusten dituzte eskubide pertsonalek eta gizarte-eskubideek berekin dakartzaten betebeharrak.

Ikastetxeko jardueretan parte hartzeko gogoia izaten dute, bizikidetzaren arauak sortzen laguntzen dute eta arau horiek urratzeak izan ditzaketen ondorioak aurreikusten dituzte.

1. dimentsioa: GIZARTE-ERREALITATEA

1. Errealitate historikoaren bilakaera

- Gertakari eta prozesu historiko nabarmenenak ezagutzen, interpretatzen eta beren testuinguruarekin lotzen ditu, historiako gizarreak sailkatzen ditu eta aldaketako eta iraupeneko prozesuak identifikatzen ditu.
- Gertakari historikoak denbora-lerrotan kokatzen ditu (ardatzak, frisoak, etab.), ohiko denbora-erreferentziak baliatuz (Kristo aurretik eta ondoren, garai historikoak, etab.), eta horien arteko loturak ezartzen ditu (sozialak, ekonomikoak, teknologikoak, politiko-militarrak, artistikoak, etab.).
- Arrazoi edo kausa anitzak adierazten ditu historiako gertakariak azaltzeko, horien ondorioetako batzuk deskribatzen ditu eta iraganeko gertakariak baliatzen ditu egungo gizarreko egoerak aztertzeko.
- Historia interpretatzeko datu objektiboak balioesten ditu, eta interpretazio mitiko edo deterministetatik bereizten ditu.
- Balioetsi egiten du, emakumeek eta gizonek, gertakari historikoen protagonista diren aldetik, gizateriaren aurrerabideari egin dioten ekarpena eta pertsonen, taldeen eta herrien egin duten lana.

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Gertakari eta prozesu historikoak ezagutzen ditu, beste gizarre-gertakari batzuetatik bereizten ditu eta haien ezaugarri batzuk deskribatzen. - Eguneroko bizitzako zenbait alderdiren (etxea, jantziak, lana, etab.) eta egitateen bilakaera historikoa ezagutzen du. - Kronologia-ardatz eta -frisoak egin eta interpretatzen ditu, eta proportzioz kokatzen ditu horietan gertakari historikoak. - Gertakari historiko konkretuen kausarik nabarmena adierazten du eta horren ondorioren bat deskribatzen. - Iraganari buruzko legendak eta ikerketetan oinarritutako azalpenak bereizten ditu. - Aztertutako gertakarien protagonista nagusiak identifikatzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Beren testuinguru historikoan kokatzen ditu gertakariak eta egungo gizarrearen egoerarekin konparatzen. - Gure gizarrean edo inguruan denboran zehar izan diren zenbait aldaketa eta iraun duten zenbait alderdi deskribatzen ditu. - Adierazpen kronologiko konplexuak ulertzen ditu (Kristo aurretik eta ondoren, mendeak, aroak). - Gertakari baten kausa anitz zehazten ditu eta beren garrantziaren arabera sailkatzen. - Gertakari historikoei buruzko datu objektiboak eta horiei buruzko iritziak bereizten ditu. - Banakoek izandako protagonismoa eta kolektibo edo herrien izandakoa bereizten ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Askotariko gertakari historikoak azaltzen ditu (ekonomikoak, sozialak, politikoak, kulturalak) eta elkarren artean lotzen ditu. - Gizarrean bilakaera-prozesu diren aldetik, aldaketa historikoak balioesten ditu, eta gizateriaren aurrerabidearekin lotzen. - Iraupen ertain eta luzeko prozesuen irudikapen grafikoak egiten ditu eta horiek interpretatzen, gertakari isolatuetatik harago. - Gertakari eta prozesu historikoei buruzko azalpenak ematean, kausa-ondoriozko harremanak ezartzen ditu. - Balioetsi egiten du frogak erabiltzea gertakari historikoen azalpenak emateko. - Ikusten du emakumeek zailtasunak dituztela gizonekin batera azaltzeko, historiaren protagonista gisa.

2. Gizartearen funtzionamenduaren eta haren lorpen eta erronken ulermena.

- Egungo gizartearen ezaugarri sozialak eta kulturalak deskribatzen ditu, eta haren dibertsitatea, aniztasuna eta denboran izan duen bilakaera nabarmentzen ditu.
- Eguneroko bizitzan eta Euskadiko, Espainiako eta Europako gizarteetan aztertzen ditu gizarte-ezaugarrien, hizkuntzen eta kulturen aniztasuna, eta balioetsi egiten du haien aberastasuna eta euskal kulturak eta beste kultura batzuek gizateriaren ondareari egiten dioten ekarpena.
- Izaera eta helburu anitzak dituzten erakundeak daudela ikusten du (kultura-elkarteak, sindikatuak, gobernuz kanpoko erakundeak, alderdi politikoak, erlijio-taldeak...).
- Egungo gizartearen zenbait arazo eta erronka ikusten ditu (populazioa, etxebizitza, indarkeria, lana, xenofobia, gizarte-bazterketa, etab.), horien kausak eta ondorioak lotzen ditu, eta sentikor azaltzen da gizarteko egoera bidegabe edo diskriminatzaileen aurrean.
- Gizartearen aldaketan, hobekuntzen eta aurrerabidearen aldeko jarrera irekia du, eta gizarteak izango duen bilakaerari buruzko iragarpenak egiten ditu, bere hipotesiak datuetan oinarrituz.
- Ongizatearen gizarteko zenbait elementu identifikatzen ditu eta gizarte-aurrerapenaren adierazpide moduan balioesten.

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
- Gizartearen zenbait ezaugarri identifikatzen ditu, eta, inoiz, aniztasun-ezaugarriak hautematen ditu zuzenean ezagutzen dituen errealitateetan.	- Egungo gizartearen oinarrizko gizarte-ezaugarriak deskribatzen ditu, eta pentsatu, bizi eta antolatzeke modu ugari daudela ikusten du.	- Bilakaera-prozesu baten baitan hautematen du egungo gizartearen dibertsitatea eta aniztasuna, eta ikusten du prozesu horretan beste kultura batzuetako elementuak hartu direla eta norberarenak egokitu.
- Gizarte-adierazpeneko modu anitz ikusten ditu eguneroko bizitzan, eta, oro har, euskal gizartearen.	- Eguneroko bizitzan, euskal gizartearen jatorrizko ezaugarriak eta beste kultura batzuek ekarritakoak bereizten ditu.	- Beste kultura batzuek euskal kulturari egin dioten ekarpena eta euskal gizarteak munduko kulturari egin dizkionak balioesten ditu.
- Gizartearen askotariko organizazioak daudela ikusten du eta haien jarduerarekin lotzen ditu.	- Inguruko zenbait elkarteren helburuak ezagutzen ditu.	- Elkarrekin jarduerak balioesten du, gizartearen gogoz eta aniztasunez parte hartzeko bideetako bat diren aldetik.
- Inguruko arazoetako batzuk adierazten ditu, eta horien kausa eta ondorioak zuzen batzuk proposatzen ditu.	- Inguruko arazo nabarmenen azterketak sakontzen ditu, kausa anitzak eta ondorioak hautemanez eta parte hartzen duten pertsonak eta kolektiboak identifikatuz.	- Elkarrekin lotzen ditu arazo anitzak (esaterako, immigrazioa, esplotazioa, pobrezia, xenofobia, etab.), eta enpatia azaltzen du kaltetuak diren pertsona eta taldeekin.
- Gizarteko berritasunek eta aldaketa zenbaitek jakin-mina sortzen diote eta haien aplikazio-eremuarekin lotzen ditu.	- Egin daitezkeen hobekuntzak aztertzen ditu eta egungo gizartearen arazo konkretuekin lotzen ditu.	- Askotariko informazioei erreparatuta, gizartearen bilakaerari buruzko iragarpenak egiten ditu.

- Erabiltzen dituen zerbitzu publikoetako batzuk adierazten ditu eta norberaren zaintzarekin eta hobekuntzarekin lotzen ditu.	- Egungo zerbitzuak eta horiek konpondu nahi dituzten arazoak lotzen ditu (gaixotasuna, langabezia, zahartzaroa, minusbaliotasunak, etab.), eta gizarte aurreratuen berezko ezaugarritzat hartzen ditu.	- Zaindu, finkatu eta babestu beharreko gizarte-lorpenetat hartzen ditu ongizate-gizartearen berezko zerbitzuak.
---	---	--

3. Lana, ekonomia, produkzioa eta kontsumoa.

- Pertsonen oinarrizko beharrianak eta horiek asetzeko baliabideak eta bitartekoak ezagutzen ditu, eta eragile eta erakunde ekonomikoen funtzionamendua azaltzen du.
- Jarduera ekonomiko nagusien antolamenduaren eta egituraren oinarrizko zenbait eredu aztertzen ditu (tamainaren, sektorearen eta beste erreferentzia batzuen arabera), bere inguruko lanbide ohikoenen ezaugarriak ezagutzen ditu, eta Euskal Herriko eta Espainiako jarduera ekonomiko nagusiak identifikatzen ditu, jarduera tradizionalak eta ekonomia berriarekin lotutako jarduerak bereiziz.
- Jakin-mina azaltzen du langile guztiek dituzten oinarrizko eskubide eta betebeharrak, laneko segurtasunarekiko eta enpresaburuen ardurarekiko; etengabeko prestakuntzaren, konpromisoaren eta norberaren poztasunaren garrantzia balioesten du; eta laneko esplotazio-, diskriminazio- edo bidegabekeria-mota oro arbuiatzen du.
- Kontsumo- eta produkzio-unitate moduan aztertzen du familia, eta ikusten du zer-nolako eragina duten familian bere inguruko gertakari eta arazo ekonomikoek (inflazioa, langabezia, bizitzaren kostua, produktu eta zerbitzuen kalitatea, etab.).
- Kontsumoak pertsonen, gizartearen eta ingurumenaren sortzen dizkien kalteak eta kontsumoaren esparruan dauden desberdintasun-egoerek dakartzaten galerez jabetzen da, publizitatearen zereginak eta helburuak aztertzen ditu, eta badaki zer onura dakartzaten kontsumo arduratsuak, bidezko merkataritzak eta garapen iraunkor baten bidea jorratzeak.

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<p>- Pertsonen oinarrizko premiak identifikatzen ditu eta premia horiek asetzeko oinarrizko mekanismo ekonomikoak adierazten.</p> <p>- Euskal Herriko eta Espainiako lanbide eta jarduera ekonomiko ohikoenak adierazten ditu eta haien antolamendua deskribatzen.</p> <p>- Langileen eta enpresaburuen oinarrizko eskubideak eta betebeharrak ezagutzen ditu, lan-gatazka batzuk deskribatzen ditu, eta laneko segurtasuna eta osasuna balioesten ditu.</p>	<p>- Produktu edo zerbitzuren batek egiten dituen oinarrizko urratsak azaltzen ditu; haien lehengaiak eskuratzen direnetik, haiek merkaturatzen eta kontsumitzen diren arte.</p> <p>- Sektoreka sailkatzen ditu jarduera ekonomikoak (lehena, bigarrena eta hirugarrena).</p> <p>- Lan-esplotazioko moduak hautematen ditu (haurren lana, immigranteen egindako abusuak), eta laneko diskriminazioa arbuiatzen du.</p>	<p>- Produkzio-prozesuaren azalpenean jasotzen ditu jarduera ekonomikoaren zenbait alderdi konplexu (diruaren eta banketxeen egitea, etekinak, publizitatea, espekulazioa).</p> <p>- Ezagutzaren eta informazioaren gizartearekin lotutako jarduera ekonomiko berriak ezagutzen eta deskribatzen ditu.</p> <p>- Lanbide-prestakuntza eta etengabeko prestakuntza lan hobeak eta asegarriagoak eskuratzeko bidea direla uste du.</p>

- Etxean lanak eta egitekoak banatzeko premiaz ohartzen da eta haiek egiteko konpromisoa hartzen du.	- Etxeko lanak banatzean emakumeek pairatzen duten diskriminazioa kritikatu du eta egoera hori gaitzetzeko moduekiko interesa erakusten du.	- Ugalketak familia eta, oro har, gizartea sostengatzeko duen garrantzia balioesten du.
- Lurreko populazioaren zati handi batek oinarritzko ondasun eta zerbitzuak eskuratzen dituen zailtasunez ohartzen da.	- Badaki zer-nolako garrantzia duen norberaren inplikazioak gehiegizko kontsumoak sortzen dituen arazoak arintzeko.	- Publizitatean kontsumo-ohituretan duen eraginaz eta soilik beharrezkoa dena kontsumitzeko premiaz hausnartzen du.

4. Informazioa eta komunikazioa.

- Gizarteko gertakariak eta arazoak ezagutzeko eta aztertzekeo behar den informazio garrantzitsua hautatzen du askotariko informazio-iturrietatik, bai iturri jarraituetatik (testu idatziak), bai iturri ez-jarraituetatik (mapak, grafikoak, irudiak, etab.).
- Gizarte-komunikazioko zenbait komunikabide identifikatzen ditu (prentsa, irratia, telebista, Internet, etab.) eta horien egitekoak deskribatzen.
- Informazioa, iritzia eta propaganda (politikoa, publizitatea, etab.) bereizten ditu, eta arbuiatu egiten du informazioaren erabilera engainagarria eta manipulazalea, eta arbuiatu egiten du hizkuntza eta publizitate-irudi sexistak edo iraingarriak erabiltzea.
- Deskribapenezko eta azalpenezko testu jarraitu eta ez-jarraitu errazak idatzen ditu, eta horietan gertakari eta prozesu, historiko, sozial, ekonomiko eta bestelakoei buruzko datuak, iritziak, emaitzak, arrazoibideak, ondorioak edo hipotesiak plazaratzen ditu.

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
- Gizarteko arazo edo gertakari bati buruzko informazioa hautatzen du ohiko informazio-iturri batetik. - - Gizarte-komunikabideak ezagutzen ditu, eta informazio-iturri gisa erabiltzen ditu. - Gizarte-arazo edo - egoeraren bat aztertzean, informazio objektiboa eta propaganda bereizten ditu, eta, horrez gain, adierazpen edo irudi diskriminatzaileak hautematen ditu, batik bat, publizitatearen esparruan. - Gizarte-alorreko gertakariak edo prozesuak deskribatzean, askotariko iturriak aipatu eta iritzi propioak ematen ditu.	- Landutako gizarte-gaiari dagozkion informazio egokiak hautatzen ditu zenbait informazio-iturrietatik. - Informazioko, aisialdiko eta bestelako funtzioak bereizten ditu eskuragarri dituen komunikabideetatik. - Informazio objektiboak eta iritziak bereizten ditu; horrez gain, engainu- eta manipulazio-modu batzuk hautematen ditu, batik bat, publizitatearen esparruan. - Testu jarraituak eta ez-jarraituak erabiltzen ditu gizarte-alorreko gertakariak eta prozesuak azaltzeko.	- Askotariko eta formatu anitzeko informazio-iturriak baliatzen ditu (jarraituak eta ez-jarraituak), landutako arazoari buruzko informazio garrantzitsua hautatzeko. - Komunikabide bakoitza aztertzean (prentsa idatzia, irratia, telebista edo Internet), berariazko teknikak aplikatzen ditu informazioa eskuratzeko. - Gizarte-gaiak lantzen dituzten askotariko mezuen (propaganda politikoa, komunikabideetako albisteak, publizitatea, etab.) helburua bereizten du. - Gizarte-gertakarietara eta - prozesuei buruzko arrazoibideak lantzen ditu eta askotariko iturrietatik hartutako informazio konplexuak baliatzen.

2. dimentsioa: HERRITARTASUNA

5. Gizarte demokratikoaren oinarriak eta antolamendua.

- Erakunde nagusiak ezagutzen ditu, udaletik hasi eta Europar Batasunerainokoak, eta haien egitekoak eta beren lurraldeetan duten antolamendu politikoa eta administratiboa identifikatzen ditu. Bere eguneroko bizitzako jardun-esparru konkretuetan parte hartzen du.
- Gizarte demokratikoekiko interesa azaltzen du eta haien ezaugarriak adierazten ditu: askatasuna, berdintasuna, pertsona guztien eskubideekiko errespetua, herritarren betebeharrak, duintasuna, ardura, justizia, elkartasuna eta diskriminaziorik eza.
- Ordezkaritza politikoen eredia aztertzen du, eta, berariaz, eredu horrek biltzen dituen aukera ideologiko anitzak eta alderdi politikoen ordezkatutako interesak.

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
- Erakunde politiko nagusiak ezagutzen ditu eta haiei dagozkien lurralde-eremuekin lotzen ditu (tokian tokikoa, autonomia-erkidegoa, estatua edo Europar Batasuna).	- Gizartearen oinarriko egitura administratiboa eta politikoa deskribatzen du, eta xehetasun nahikoz azaltzen du horietakoren baten funtzionamendua (esaterako, lege bat nola egiten den).	- Botere-banaketa (exekutiboa, legegilea eta judiziala) balioesten du, gizarte demokratikoaren oinarrietako bat den aldetik, eta bere eguneroko bizitzako alderdiekin lotzen ditu hiru botere horiek.
- Gizarte demokratikoaren ezaugarri batzuk identifikatzen eta deskribatzen ditu; esaterako, askatasunak, berdintasuna eta justizia.	- Egungo munduko arazoak aztertzen ditu (ingurukoak nahiz urrunekoak), eta gizarte demokratikoen eta izaera hori ez duten gizarte baliok eta ezaugarriak bereizten ditu.	- Bere bizitzan gizarte demokratikoen baliok aplikatzeko interesa azaltzen du.
- Adibideen bidez, eguneroko bizitzan diferentzia ideologikoak nola azalarazten diren adierazten du.	- Bere inguruan dauden alderdi politikoen lotzen ditu diferentzia ideologikoak eta arazo zehatz batean aplikatuta deskribatzen ditu.	- Gizartearen ordezkaritza politikoko eredia aztertzen du, eta aukera ideologikoak azalarazteko moduari buruzko ondorioak ateratzen ditu.

6. Herritartasunaren egikaritzea edo erabilera arduratsua.

- Herri- eta gizarte-partaidetzako modu zuzenak (batzarrak, bilerak, etab.) eta zeharkakoak (hauteskundeak, etab.) ezagutzen ditu.
- Gizarte-partaidetza bideratzen duten elkarten (kultura-elkarteak, aisialdikoak, boluntarioen elkarteak, sindikatuak, alderdi politikoen, etab.) helburuak, egitura eta ezaugarriak ezagutzen ditu.
- Partaidetza politikoa balioesten du, herritarren interesak bideratzeko modu baketsua den aldetik, jarrera kritikoa ageri du parte hartzearekin hotz ageri direnekin, eta indarkeriazko eta demokraziaren aurkako jokabideak arbuatzen ditu.

- d. Badaki zer garrantzitsua den herritarrek informazio independentea eta anitza eskuratzeko aukera izatea, herritarrei dagozkien gai buruzko iritzi propioa osatzeko aukera ematen duten aldetik.

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Partaidetza zuzeneko moduak (batzarrak, bilerak, manifestazioak, etab.) eta zeharkakoak (hauteskundeak) ezagutzen ditu, batik bat bere eskolan eta herrian ematen direnak. - Inguruan dituen izaera anitzeko elkarten helburu nagusia ezagutzen du. - Ideiak inposatzea eta indarkeria erabiltzea arbuiazen du, eta jendearen partaidetza politikoa balioesten du, talde, komunitate edo gizarteko arazoak konpontzeko. - Askotariko informazio-iturriak topatzen ditu, gizarte-intereseko gai publikoak jorratzen dituztenak. 	<ul style="list-style-type: none"> - Unean uneko egoera edo arazoari dagozkion herri- eta gizarte-partaidetzako bideak lotzen ditu. - Elkarte baten oinarrizko funtzionamendua eta egitura azaltzen ditu, batik bat gobernu kanpoko erakunderen batenak. - Herritarren partaidetza eta gizarte demokratiko baten oinarrizko eskubideak (adierazpen askekoa, bilerak eta manifestazioak egitekoa, etab.) lotzen ditu. - Partaidetza arduratsua egiteko arazoari buruzko aurretiazko informazioa izatea komeni dela irizten dio. 	<ul style="list-style-type: none"> - Herri- eta gizarte-partaidetzako egoera konkretuak aztertzen ditu, eta horietan pertsonen eskubideak errespetatzen edo urratzen diren baloratzen du. - Elkarteren baten funtzionamendua aztertzen du, eta elkarte horretan duen partaidetza identifikatzen du. - Herritarrak politikan parte hartzeko formulak planteatzen ditu, arazo zehatzak konpontzeko egokiak. - Askotariko informazioei erreparatuta, arazo edo gai bati buruzko proposamenak egiten ditu.

7. Giza eskubideak eta mundu-herritartasuna.

- a. Giza eskubide unibertsalak eta haurren eskubideak ezagutzen ditu eta horiek balio eta printzipio demokratikoekin lotzen. Bere inguruko egoerak edo komunikabideetan azaldutakoak aztertzean, arbuiazen egiten du eskubide horiek ez betetzea edo urratzea.
- b. Bera kide den taldeetan gertatzen diren diskriminazioak identifikatzen ditu, diskriminazio horiek pairatzen dituztenekiko interesa azaltzen du eta egoera horiek zuzentzeko bideak erabiltzen eta neurriak proposatzen ditu.
- c. Herritartasuna familian, ikastetxean, kultura- eta aisialdi-esparruetan eta beste esparru batzuetan egikaritzeak dakartzan eskubideak ezagutzen ditu, eta arduraz jokatzeko du.
- d. Hainbat balio balioesten ditu (bakezaletasuna eta indarkeriarik eza, giza eskubideak, justizia eta ekitatea, ingurumenaren babesa eta iraunkortasuna, kultura minorizatuen babesa, etab.), eta balio horiekiko konpromisoa adierazten duten elkarte, talde eta organismoak ezagutzen ditu.
- e. Dibertsitatea balioesten du, kultura-aberastasuna dakarren aldetik, mundu-mailako herritartasunarekiko konpromisoa hartzen du eta bere ekintzek mundu osoan duten eraginaz jabetzen da.

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Giza eskubideen eta haurren eskubideen esanahia ulertzen du eta bere bizitzako edo inguruko alderdi zehatzen lotzen ditu. - Bere eguneroko bizitzan gertatzen diren diskriminazioak, abusua eta bidegabekeriak hautematen eta deskribatzen ditu. - Gainerako pertsonak dituzten eskubideak aitortzen ditu, eta eguneroko bizitzan eskubide horiek erabiltzeko dauden aukerekin lotzen. - Eskubideen urrapenak, gizarte-bidegabekeriak eta ingurumen-arriskuak lotzen ditu egoera horietarako egokiak izan daitezkeen konponbide-proposamenekin. - Pertsonak eta taldeak diferenteak izateko duten eskubidea balioesten du, horiek guztiek giza eskubide unibertsalak eta komunak badituzte ere. 	<ul style="list-style-type: none"> - Printzipio demokratikoak eta eskubide unibertsalak egoera konkretuetan babesteko jardunak lotzen ditu. - Neurriak proposatzen ditu diskriminazio-egoerak gerta ez daitezen eta neurri horiek betetzeko jarrera azaltzen du. - Eguneroko bizitzan, norberaren eskubideak erabiltzen modu zehatzak deskribatzen ditu, gainerako pertsonen eskubideak urratu gabe. - Bere inguruan edo mundu osoan bidegabeko egoeren aurka lan egiten duten elkarteak ezagutzen ditu, eta haien helburuak eta planteamenduak deskribatzen. - Munduko herritartasunaren zentzua ulertzen du; hau da, planetako pertsona guztiek eskubide unibertsalak dituztela. 	<ul style="list-style-type: none"> - Pertsonen giza eskubideak urratzen diren egoerak aztertzen eta arbuatzen ditu. - Bere inguruan diskriminazioak pairatzen dituzten pertsonen egoerak arduratzen da eta haiei laguntzen saiatzen da. - Oinarriko eskubideren bat urratua izan bada, badaki zer bide dauden protestatzeko eta erreklamazioak egiteko. - Gizateriak pairatzen dituen injustizia-arazoak eta bestelako arazoak konpontzeko ekintzak babestu edo ekintza horietan parte hartzeko prest ageri da. - Gizateriaren eta biosferaren arteko elkarmendetasunaz ohartzen da, eta badaki bere ekintzek ondorio kaltegarriak eragin diezazkiokeela gizateriari.

3. dimentsioa: BIZIKIDETZA

8. Gatazkak ebatzi edo konpontzea.

- a. Jarrera eraikitzailea azaltzen du gatazken eta horiek konpontzeko prozesuen aurrean, beste pertsonaren lekuan jartzen da eta elkarrizketa eta negoziazioa erabiltzen ditu elkar ulertzeko tresna gisa.
- b. Familia-gatazkak, pertsonenak, tokian tokikoak, nazionalak eta nazioartekoak aztertzen ditu, gatazka horien kausak, ondorioak, interesak, jarrerak eta protagonistak identifikatzen ditu, eta aintzat hartzen ditu pentsamenduen, sentimenduen eta ekintzen dimentsioak.
- c. Konponbideak proposatzen ditu gatazkentzat, horietan parte hartzen duten pertsonen (eragile, biktima eta ikusleen) eskubideen ikuspegitik eta haien beharrianak asetzeko premiaz ohartuta.
- d. Pertsonen arteko harremanetan gizarte-trebetasunak eta emozioak kontrolatzeko jarrerak identifikatzen eta garatzen ditu.
- e. Desadostasunak eta jarrera kritikoak balioesten ditu, gizarte demokratikoetako bizikidetzaren bidezko oinarriak diren aldetik.

- f. Askotariko gatazkak (etnikoak, sozialak, militarrik, ekonomikoak, ingurumenekoak, etab.) eta arazoak (tokikoak edo mundukoak) konpontzen diharduten erakundeen jarduera aztertzen du.

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Esparru eta izaera ugariko gatazkak (pertsonalak, lanekoak, politikoak, etab.) ezagutzen eta deskribatzen ditu. - Arazoak konpontzeko proposamenak egiten ditu, eta gainerako pertsonak egindako proposamenak entzuten; hala, ikuspuntu diferentek aintzatesten ditu. - Eskola-gatazketako biktimak identifikatzen ditu. - Gatazkak piztu ohi dituzten egoerak ezagutzen ditu. - Gatazka-mota bakoitzean, badaki zer pertsona-mota den egokia bitartekaritza-lanak egiteko. 	<ul style="list-style-type: none"> - Gatazken protagonistak eta gatazkak sorrarazi dituzten kausak identifikatzen ditu. - Gatazkak konpontzeko, elkarriketa baliatzen du, gai da beste pertsonaren lekuan jartzeko, eta konponbide errealistak proposatzen ditu. - Konponbide-aukera arazoizko eta bidezkoak proposatzen ditu eskola-gatazketentzat. - Gatazkarik ez sortzeko jarraibideak eta adostasun kolektiboak iradokitzen ditu. - Bitartekaritza-lanen nondik norakoak azaltzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Kausak aztertzen ditu, ondorioak aurreikusten ditu eta balizko konponbideak konparatzen ditu. Konponbideen ondorioak aurreikusten ditu eta pertsona inpartzialen laguntza balioesten du. - Beren harreman-esparruan gertatzen diren gatazketako biktimiek jasandako kalteak konpontzeko proposamenak egiten dituzte (barkamena eskatzea, etab.) eta haien lekuan jartzen da. - Eguneroko bizitzan gatazkak sor ditzaketen egoerak aurreikusten eta hautematen ditu. - Gatazkak konpontzen diharduten nazioarteko erakundeak ezagutzen ditu eta haien jarduerak aztertzen.

9. Norberaren nortasuna eta jarrera etikoa.

- a. Bere jarrera etikoa eta jokabideak bat datoz bere pentsamenduekin, emozioekin eta denboran zehar eraikitzen joan den balio demokratikoen sistema pertsonalarekin.
- b. Irizpide propioz jarduten du, erabakiak hartzen ditu gizarte-egoeretan eta irizpide kritikoz baloratzen ditu beste erlijio, etnia, sexu, kultura edo ezaugarriko pertsonetikiko aurreiritziak eta diskriminazio-jarduerak.
- c. Bere nortasunaren ezaugarriak ezagutzen ditu.
- d. Balioetsi egiten du zer-nolako egitekoa duten diferentzia kulturalak eta pertsonalek bere nortasuna eta balio-sistema eraikitzeko.

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Bere genero-rolak eta ikasten dituen balio moralez jabetzen da. - Diskriminazio-egoerak identifikatzen ditu eta aurreiritziak hautematen ditu jendearen jokabide eta jarreretan. - Beste pertsona eta kultura batzuen ezaugarriak konparatzen ditu eta horiek egiten dituzten ekarpen positiboak adierazten. - Dituen betebeharez jabetzen da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Batean biltzen ditu bere genero-rolak, ikasitako balio moralak eta bere jokabideari buruz dauden aurreikuspenak. - Bere pentsamenduak, sentimenduak eta eraikitzen ari den balioak koherenteak dira. - Beste kultura batzuk egindako ekarpenak aitortzen ditu. - Beste pertsona batzuekin egin beharreko lanetan duen partaidetzaz eta arduraz hausnartzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Bere nortasuna finkatzeko bidean, batean biltzen ditu bere genero-rolak, ikasitako balio moralak eta bere jokabideari buruz dauden aurreikuspenak. - Autonomiaz jarduten du arazoan aurrean, eta ez diote eragiten kanpoko presio individual edo kolektiboek. - Norberaren nortasuna eraikitzeko diferentziek duten balio aberasgarriaren alde ageri da. - Bere egin ditu "eskubide" eta "betebehar" kontzeptuak.

10. Bizikidetzaren araupen edo antolamendua.

- a. Elkarbizitza eta bizikidetzara arazoak konpontzeko gizarte-arauak onartzen eta erabiltzen ditu.
- b. Arauak urratzen diren egoerak identifikatzen eta bere gain hartzen ditu, eta urratze horien ondorioak aurreikusten ditu.
- c. Gogoz parte hartzen du bizikidetzara arauak adostasunez sortzeko prozesuetan eta bete egiten ditu guztien artean adostutako konpromisoak.
- d. Ikastetxeko kide sentitzen da, eskola-jardueretan inplikitzen da eta haiekin gozatzen du.

Hasierako maila	Erdi maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetzara egoera bakoitzari dagokion araua identifikatzen du. - Eskolan, etxean edo kalean arauak noiz urratu diren jakiten du eta badaki horrek zer ondorio dakartzan. - Ikastetxeko bizikidetzara erraztuko duten funtzionamendu-akordioak proposatzen ditu. - Ikastetxean erabiltzen diren eremuak zaintzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Adostutako arauak betetzen ditu. - Eskolan, etxean edo kalean arauak noiz urratu diren eta arau-hauste horiek zer ondorio ekarri duten azaltzen du. - Ardurak hartzen ditu familian, ikastetxean eta beste harreman-esparru batzuetan. - Ikastetxeko jardueretan parte hartzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Bizikidetzara arau-sistema baten bidez antolatzea komeni dela balioesten du. - Arauen urratze-egoerak aztertzen ditu askotariko eremuetan eta urratze horien ondorioez hausnartzen du. - Lan egiten du adostasunak lortzeko eta bere egiten ditu adostutako konpromisoak. - Ekimenetan laguntzen du eta jarduerak proposatzen ditu.